

**Euskalkien eta euskara batuaren presentzia
eskolan: Azkoitiko Xabier Munibe ikastolako
azterketa**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Laka Ibarrola, Alaia

ZUZENDARIA: Larraza Arnanz, Saioa

2023

LABURPENA

Gradu amaierako lan honen bitartez, Azkoitiko (Gipuzkoa) Xabier Munibe ikastola aintzat hartuta euskalkiak eta euskara batuak zein eta nolako presentzia hartzen duten ikusi da. Horretarako, euskara hizkuntza gutxitu bat den heinean, hizkera ezberdinek ikastetxeko hiru alderdi ezberdinetan hartzen duten tokia aztertu da, zehazki, irakasle, ikasle eta materialetan. Azterketa burutzeko, atal bakoitzari bideratutako behaketa-orriak erabili dira, euskalki eta batuak esparru jakin horietan duten erabilera zehatza ezagutzeko asmoz. Ikastetxeak zehaztuta badu ere irakasleak euskara batua erabili behar dutela, hau beti ez dela betetzen ikusi ahal izan da, eta horrek zailtasunak sorrarazten ditu ikasleek euskara batua erabiltzeko orduan. Bestalde, ikasle guztiek euskalkia erabiltzen dute, nahiz eta ikastetxeak honen lanketa berezirik ez egin. Materialetan, berriz, guztia euskara batuan dagoela ikusi da. Horrela, hiru esparru hauek aztertuta, bakoitzaren erabilerak guztiz ezberdinak direla ikusi da. Ondorioz, ikastetxeak honen inguruko lanketa egitea beharrezkotzat jotzen da.

RESUMEN

A través de este trabajo de fin de grado, hemos analizado la presencia del dialecto local y del euskera estándar en la Ikastola Xabier Munibe de Azkoitia (Guipúzcoa). Para ello, y teniendo en cuenta que el euskera es una lengua minoritaria, se ha medido la presencia de estas dos variables en tres ámbitos educativos: en profesores, alumnos y materiales. Para llevar a cabo este análisis se han utilizado hojas de observación específicas para cada uno de los ámbitos. Si bien el centro tiene establecido que se tiene que utilizar el euskera estándar en sus labores diarias, se ha podido observar que no se cumple esto. Según hemos podido comprobar, esto genera ciertas dificultades en el aprendizaje de los niños. Por otro lado, todos los alumnos utilizan el dialecto local, aunque la ikastola no tenga un plan de tratamiento especial sobre uso. En cuanto a los materiales, se ha observado que todo está en euskera estándar. Así, la comparación de estos tres ámbitos pone de manifiesto el uso totalmente diferente que se hace de la lengua en cada uno de ellos. Es por ello que vemos necesario que el centro desarrolle un plan de sobre el uso del euskera en el ámbito escolar.

Aurkibidea

1. Sarrera.....	3
2. Justifikazioa.....	4
3. Marko teorikoa.....	5
3.1. Hizkuntza gutxituen irakaskuntza.....	5
3.1.1. Ahozotasuna irakastearen berezitasunak.....	8
3.2. Euskara batuaren sorrera eta euskalkiak.....	11
3.2.1. Euskara batuak eta euskalkiek jendartean izandako bilakaera.....	11
3.2.2. Urola Erdi bailararen eta Azkoitiaren datu soziolinguistikoak.....	13
3.3. Euskara batua eta euskalkia eskolan.....	14
3.3.1. Dialektoen joera irakaskuntzan.....	14
3.3.2. Euskararen irakaskuntza Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean.....	16
3.3.3. Eskolako hizkuntza-proiektua.....	17
4. Hipotesiak.....	20
5. Datu bilketa: euskalkien presentzia eskolan.....	20
5.1. Irakasleak.....	21
5.2. Ikasleak.....	23
5.3. Materialak.....	23
6. Emaitzak.....	23
6.1. Irakasleak.....	23
6.1.1. Tutoreari egindako behaketaren emaitzak.....	23
6.1.2. 4 irakasleri egindako elkarrizketen emaitzak.....	25
6.2. Ikasleei egindako behaketen emaitzak.....	30
6.3. Material behaketaren emaitzak.....	32
7. Ondorioak.....	33
8. Erreferentziak.....	39
9. Eranskinak.....	40
1. Eranskina: LH 5. mailako A gelako tutorearen behaketa egiteko orria, item bakoitzari dagozkion erantzunekin.....	41
2. Eranskina: LHko 4 irakasleri egindako elkarrizketen transkribapenak, irakasle bakoitzari dagozkion kodeekin.....	43
3. Eranskina.....	56

1. Sarrera

Euskal Herriko eremu askotan oraindik beraien arbasoen bitartez jasotako euskalkia mantentzen jarraitzen dute. Hala ere, urteak igaro ahala beste edozein hizkuntzarekin gertatzen den bezala euskalkia aldatzen joan da. Azkoitia euskalkia duen herria dela aintzat hartuta eta etorkizunean irakasle izango garenez, Azkoitiko Xabier Munibe ikastolan euskara batuari eta bertako euskalkiari zein nolako trataera ematen zaion ikusi nahi izan da.

Lan honen bitartez, euskalkiak eta batuak ikastetxean duten presentzia aztertzeaz gain, hiru esparru ezberdin aztertu dira; irakasle, ikasle eta materialak. Hauen bitartez, bakoitzaren erabileraren zergatia ikusi nahi izan da, baita ere, ikastetxeak euskalkia bultzatzeko zein ekintza edo jarduera egiten dituen. Izan ere, irakasle bakoitzak bere euskalki propioa izateaz gain, gerta daiteke ikasgelan ikasleek hau ez ezagutzea edota euskara hori menderatzen duen ikaslerik ez egotea. Gainera, lan formalak egitean batua erabiltzera behartuko dituzte eta ikasleek irakaslea batua erabiltzen duen erreferente bezala ez badute, zailtasunak izan daitezke, kontuan izanda ikasleek tokian tokiko euskalki bat dutela, batzuetan irakaslearen euskalkiarekin bat ez datorrena. Ikasleen arteko harremanak ere zer hizkeratan ematen diren aztertu da, euskara lehen hizkuntza edo bigarren hizkuntza bezala duten ikasleen erabilera bereiziz, hauetako batzuk euskara etxetik jasoko baitute eta beste batzuentzat, berriz, gerta daiteke euskaraz hitz egiteko espazio bakarra ikastetxea izatea. Hemen ere, funtsezkoa izango da ikasleen eta irakasleen arteko harremana euskalkian edo batuan ematen den aztertzea. Materialei dagokionez, guztia euskara batuan eginda badago ere, irakasleak edo ikastetxeak hau lantzeko materialik prestatzen duten ikusi da, ikasle guztiek beraien herrian tokiko hizkeraren gutxieneko ezagutza bat izan dezaten.

Goian aipatutako guztia aztertzerantz bideratu dut lana, urrats hauek jarraituz. Lehenik, nire aukeraketa zergatik izan den azalduko da. Bigarrenik, lana aurrera eramateko eta behaketa behar bezala egiteko behar izan dudana informazioa aurkeztuko da. Honen bitartez, behean zehazki azalduta aurkitzen den behaketa burutu baitut. Bertan, ikastetxean euskara eta euskalkiaren irakaskuntzarako funtsezkoak diren hiru alderdi bereiztu ditut; irakasleak, ikasleak eta materialak. Gainera, lau irakasleri egindako elkarrizketak ere aztertu dira. Lanarekin bukatzeko, aztertutako hiru atalen emaitzak eta hauen ondorioak daude. Goian aipatu bezala, hau guztia Azkoitiko Xabier Munibeko ikastolako ikasle nahiz irakasleei praktikaldian zehar egindako behaketari esker burutu da.

2. Justifikazioa

Hamarkada luzeetan gainbeheran egon den hizkuntza dugu euskara, eta egun biziberritze-prozesu betean egon arren, oraindik ere hizkuntzaren erabilera erronka handia da. Gainera, kontuan hartu behar da eremu soziolinguistiko txiki samarrear dagoen aldagarritasun handia, eta euskalki ugarien presentziak eta garapenak ere behar espezifikoak ekartzen dizkio hizkuntzari. Gaur egungo hezkuntza sisteman euskara batuaren lanketa ezinbestekotzat ematen bada ere, txikiagoa izan ohi da euskalkiari ematen zaion lekua. Honen ondorioz, euskara bere osotasunean lantzeko beharra ikusten da, bi hizkeren artean nolabaiteko oreka bilatuz edo.

Gai hau hautatu dut pertsonalki bizi izan dudan egoera bat delako. Ondarrutarra naizenez, ikastetxean nahiz herriko eremu guztietan txikitan euskalkia erabiltzen genuen, baina eskolan idatziz nahiz ahoz aritzeko orduan batua erabiltzera bultzatzen gintuzten. Hau dela eta, euskalkien lanketarik ez genuen egiten. Urteak igaro ahala asko nabaritu dut herriko euskalkia oso gutxi ezagutzen nuela, lehen erabiltzen zituzten hitzetako asko ez baititut ezagutzen. Beraz, nire egoera pertsonal hau aintzat hartuta eta Azkoitia bezalako herri batean izanik praktikak, gaur egungo ikastetxeetan euskalkiari zer nolako presentzia eta erabilera ematen zaion ikusi nahi izan dut.

Ikastetxea jendez inguraturako komunitate batek osatzen du eta Azkoitiko ikastolako kasuan, gehienek herrian tokiko hizkera erabiltzen dute. Honen aurrean, funtsezkoa iruditzen zait ezagutzea irakasleek zein iritzi duten honen inguruan eta zer egiten duten Azkoitiko euskalkia bultzatzeko. Izan ere, etorkizuneko irakasle bezala, txikitan nire euskalkia aintzat hartzea gustatuko zitzaidakeen bezala, iruditzen zait nire etorkizuneko ikasleek beraiena aintzat hartzea nahiko luketela. Honen aurrean, funtsezkoa izango da Azkoitia bezalako herri batean honen trataera nola egiten den ikustea, etorkizunera begira jakintza gehiago izan dezadan.

Hau guztia esanda, funtsezkoa iruditzen zait euskara hizkuntza gutxitu bat den heinean, hau Euskal Herriko biztanle orori osotasunez ikasteko aukera eskaintzea eta ez hori soilik, baizik eta hau erabiltzeko espazioak sortzea ere. Beti ere, kontuan izanik biztanle bakoitzaren egoera soziolinguistikoa eta hau ikasteko dituen erramintak, bakoitzaren beharretara egokitzeko. Beraz, honekin, Azkoitia bezalako herri batean euskalkien eta euskara (osotasunean) irakaskuntza bermatzeko zein eta nolako jarrera eta baliabide dauden ikusi nahi izan dut.

3. Marko teorikoa

3.1. Hizkuntza gutxituen irakaskuntza

Hizkuntza gutxituak definitzerako orduan, aintzat hartu behar diren hainbat ezaugarri daude. Blanchetek (2005) aipatu bezala, biztanle kopurua, hauen banaketa edota hizkuntza bezalako irizpideez gain, gizartearen antolaketa edo irizpide sozio-politikoekin zerikusia duten alderdiak ere kontuan hartu behar dira (Blanchet, 2005; in Manterola & Berasategi, 2011). Hauen ezaugarri nagusia da erabilera-esparruak mugatuta izaten dituztela, hau da, eremu gutxi batzuetan besterik ez da erabiltzen hizkuntza gutxitu hori. Honen ondorioz, hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa ahula denez, leku gutxi batzuetan erabiltzen baita, honek eskolan ere eragina izan dezake, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak ahulduz.

Irakaskuntza hizkuntza gutxitu batean gauzatzeak, indarguneak eta mugak dituela esan daiteke. Lehenengoan zentratuz, Cunningham-en (2005) esanetan, eskolan etxeko hizkuntza bera erabiltzeak autoestimua hobetzen laguntzen du, baita ere hizkuntza biziberritzen (Cunningham, *apud* Manterola & Berasategi, 2011). Honen bitartez, ikasleek beraien hizkuntza aintzat hartzen dutela ikus dezakete, hau ahalik eta egoera gehienetan erabiltzen saiatuz.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean, EAE) ikastetxe gehienek D eredua eskaintzen badute ere, iraganean, urte askotan zehar, debekatuta zegoen euskararen irakaskuntza. Horri aurre egin nahian, ikastolak sortu ziren, hor hasi zen euskara eskola-hizkuntza izaten. Hauen eskutik, ikastetxean lantzen zen beste edozein hizkuntza bezala, euskara, ikasgaiak landu eta edukiak eskuratzeko bitartekoa izatera pasa zen lehen aldiz. Hasiera batean, irakaskuntza hori soilik euskara zekiteni bideratuta bazegoen ere, geroago, murgilketa gauzatzen saiatu ziren. Hau da, etxetik gaztelaniadunak zirenak ere euskaraz eskolaratzen zituzten eta hor hizkuntza irakaskuntza gauzatzen zen, umeen bigarren hizkuntzan, euskaraz, hain zuzen ere (Idiazabal eta Manterola, 2009).

Esan beharra dago murgilketa programek ere lan handia egin dutela euskara indarberritzen, baina hau, ez da soilik ikastetxean indartu beharreko gauza, baizik eta horretarako inguru guztiaren parte hartzea beharrezkoa izango da. Murgiltze-programa horrek izan ditzakeen oztopoei dagokionez, aipatzekoa da ez dela nahikoa izango hizkuntza gutxitua eskolako lehen urteetan soilik aintzat hartzea eta Bigarren Hezkuntzan gizarteko beste hizkuntza indartsuagoek garrantzi handiagoa hartzea. Ordura arteko lan guztia alde batera uztea

eragin baitezake horrek. Gainera, euskararen kasuan, gerta daiteke ikasle batzuentzat (etxetik gaztelaniadunak direnentzat, adibidez) hizkuntza gutxitu hori soilik eskolako euskarazko ikasgaietara mugatzea, eta egunerokotasuneko erabileran, bestelako hizkuntza bat erabiltzea (Manterola eta Berasategi, 2011). Beraz, Idiazabal eta Manterolak (2009) esan bezala, euskara hizkuntza gutxitu bat den heinean, ahal bezain goiz hasi behar da honen irakaskuntza, hizkuntzaren eraginkortasuna ahal bezain beste aurreratzeko, baina aldi berean, beharreako izango da ikaslearen hezkuntza-etapa guztietan ematea, hizkuntzaren ikaskuntza egoki bat bermatzeko.

Manterola eta Berasategik (2011) aipatu bezala, mantentze-programa edo murgilketa-programak ere badaude, non hauek hizkuntza gutxituen ikaskuntzan garapena emateko aukera gehiago ematen duten. Murgilketari dagokionez, bigarren hizkuntzaren irakaskuntza ikuspegi komunikatiboan oinarritzea komeni da, hau da, hizkuntza erabiltzen ikastea. Gainera, nabarmentzekoa da ez duela ikaslearen ama-hizkuntza baztertzen, baizik eta helburua da ikaslea elebidun bihurtzea, aldi berean, bere ama-hizkuntza ere indartuz. Beti ez bada ere, gehienetan irakasleak ikaslearen lehen hizkuntza ezagutuko du, horrek hizkuntza berriaren irakaskuntza errazagoa ahalbidetuz. Irakasleak hizkuntzaren ikaskuntzan egiten dituen aurrerapenak txalotzearekin batera, oraindik hobetu beharreako jakiteak lagunduko dio ikaskuntza esanguratsuagoa izaten. Hau gauzatzeko modu ezberdinak daude eta eskola eta irakasle bakoitzak hizkuntza-objektua modu batera irakatsiko dute (Idiazabal eta Manterola, 2009).

Mantentze-programan, berriz, ikasleek beren etxeko hizkuntza mantentzeaz gain, gure kasuan euskara, hurrek gizarteko hizkuntza nagusia ere ikasiko dute, hau da, gaztelania. Beraz, programa honetan hizkuntza gutxitua bultzatzen da, hizkuntza nagusiaren ikaskuntza bermatzearekin batera. Euskal Herriko ikastetxe askotan programa hau ere egongo da murgiltzearekin batera, izan ere, ikasle batzuen ama-hizkuntza euskara denez (batua zein euskalkia), eskolan ere honen ikaskuntza bultzatzen da (Manterola eta Berasategi, 2011).

Hizkuntza-programez gain, hizkuntza-ereduak ere bereiztea esanguratsua da. Espainiako Hezkuntza Ministerioak 1979. urtean aurkeztutako diseinuan lau hezkuntza eredu aurkezten dira: A, B, C eta D. Hauek, ikasle eta ingurune soziolinguistiko euskaldunaren arabera osatu ziren. A eredua, etxean erdaldun nahiz inguru erdaldunetako ikasleei bideratuta dago, euskara ikasgaiak presentzia txikia izanik; B eta C ereduak, etxean eta inguruan erdaldun edo erdi-erdaldun edo erdi-euskaldun direnak hartzen ditu, euskara ikasgaiaz gain, beste ikasgai batzuk ere lantzen dituzte euskaraz; D ereduan, guztia euskaraz da gaztelania ikasgai izan ezik (Idiazabal eta Manterola, 2009).

Euskararen erabilera, hizkuntza gutxitu gisa, azken urteetan asko murriztu bada ere, gero eta gehiago dira beraien haurrentzako D euskarazko murgiltze-eredua aukeratzen duten familiak (Amorrortu eta Ortega, 2009). Hau horrela, EAeko egungo ikastetxe gehienek D eredua dute, hemen ikasgai guztiak euskaraz ematen dira, gaztelania eta ingelesa izan ezik. Horrek bermatzen du ikasle kopuru handi batek etxetik dakarten edota kalean erabiltzen duen gaztelaniaren ikaskuntza egokia ematea, eta baita ikasleek beraien hizkuntzarekiko atxikimendua bilatzea. Gainera, eredu honek irakaskuntza elebiduna izatea ahalbidetzen du, ikasleak bi hizkuntza jakin eta hirugarren bat ikasteko aukera izanik.

Hizkuntzen arteko harremanari dagokionez, Cummins-en (1983) Elkarmendekotasun Teoria ekarri nahi dugu, non aipatzen duen, hizkuntzen azaleko jakintzatik haratago badagoela hauen arteko sakoneko edo azpiko gaitasun komun bat (Manterola eta Berasategik aipatua, 2011). Honen arabera, hizkuntza bakoitzak begi bistaz ezaugarri guztiz ezberdinak baditu ere, hauen azpian sakoneko gaitasun komun bat izango lukete. Beraz, hauen ikaskuntza ikaslearen gaitasun kognitiboaren arabera izango da (Idiazabal eta Manterola, 2009). Hau euskalkiarekin ere gerta daiteke, izan ere, euskalkiei begiratuta, azalean guztiz ezberdinak ematen badute ere, honen irakaskuntza edo lanketarako, sakonean, konpartitzen duten gaitasuna dute, gaitasun komunikatiboetan oinarritua, eta euskalki zehatz bat duen ikasleari euskara batuaren ikasketarako bidea erraztu diezaioke gaitasun partekatu horrek.

Izan ere, euskararen ezaugarri nagusietako bat eremuaren arabera dituen euskalki ezberdinak dira. Horrela, gerta daiteke, irakaslearen dialektoa eta ikaslearena ez izatea berdina. Honen aurrean funtsezkoa da irakasleak euskara estandarra erabiltzea, beti ez baitute irakasle guztiek komunitate horretako dialektoa ezagutuko, nahiz eta, honen inguruan gutxieneko ezagutza bat izatea funtsezkoa den (Manterola eta Berasategi, 2011).

Bestalde, gaztelania eta euskara ama-hizkuntza bezala duten ikasleek gain, gerta daiteke atzerritik iritsitako ikasle etorri berriek eskolako hizkuntzak ez jakitea eta horrek, jakina, zenbait zailtasun eta erronka dakartza. Izan ere, euskara ez jakiteaz gain, eskolaren eremuaren arabera euskalkiaren erabilerak indar handia izan dezake, eta horrek aurrera eramane beharreko hizkuntza-irakaskuntza egoki bat eskatzen du. Hau horrela, garrantzitsua izango da harrera-herrialdetik era askotako baliabide eta bitartekoak eskaintzea etorkinek hizkuntza berriak (eta kasuan kasu, dialekto berriak) ikasteko, eta era berean, beraien ama-hizkuntza ere bultzatu eta sustatzea (Manterola eta Berasategi, 2011). Hori guztia beraien jatorrizko hizkuntza alde batera utzi gabe egin beharko da, gainera.

Goian aipatutako bi programez gain, sumertsio-programa ere badago. Hemen, hizkuntza gutxitua duten haurrak hizkuntza nagusiaren komunitatean eta kulturaren txertatzen dituzte, haurrek etxetik dakartzaten hizkuntza eta kultura alde batera utziz (Manterola eta Berasategi, 2011). Honek guztiak eragin handia izango du ikasle etorri berrien hizkuntza garapenean; euskararen presentziak eta erabilerak, baita beraien ama-hizkuntzari ikastetxean ematen zaion tokiak ere erlazioa izango duelako. Egoera batzuetan, gerta daiteke, euskararen ikaskuntzan ikasleak eskolako jarduerak behar bezala ezin jarraitzea, hau da, etxearen eta ikastetxearen artean ematen dena ez izatea hizkuntza-aldaketa, baizik eta honen etena, hizkuntzaren ikaskuntza eragotziz (Manterola eta Berasategi, 2011). Honen aurrean, eskolak ikasleen etxeko hizkuntzak eta kulturak kontuan hartu beharko ditu, alderdi horiek guztiak ikastetxeko esparru ezberdinetan landuz. Horrela, ikaslea ikastetxearen eta hau inguratzen duen guztiaren parte sentiarazi behar da.

3.1.1. Ahozko irakastearen berezitasunak

Ahozko hizkuntzaren irakaskuntza urte askotan zehar hezkuntzan baztertuta egon den alderdietako bat da, nahiz eta honen erabilera egunerokotasunean funtsezkoa izan esparru guztietan, baita komunikatzeko baliabide nagusia izanda. Arrazoien artean daude kontzeptua bera zaila izatea eta bestetik, hau nola irakatsi eta nola zuzendu erabakitzea ere ez dela idatzizkoarekin bezain erraza (García Azkoaga et al. 2010). Del Rio (1993) aipatu bezala, ahozkoaren irakaskuntza neketsuagoa izan daiteke ahozkoak eskatzen duen lan eta denbora handiarengatik (in García Azkoaga et al., 2010). Hala ere, gaur egun ikastetxeetan idatziaren erabilera egokiari garrantzia handia ematen bazaio ere, ahozkoa geroz eta gehiago lantzen ari dira, ez soilik erregistro formala, beste erregistro edo hizkerak ere bai (Maia eta Larrea, 2008). Beraz, ahozkoak lehen ez bezala, orain, indarra hartu duela esan daiteke.

Ahozko hizkuntzaren lanketa horretan, eskolak testuinguruaren arabera egokitutako hizkera landu beharko luke, haurrak erabilera modu guztiak ezagutu ditzan (Goikoetxea, 1996). Zehazki, eskolak ikasleei erregistro ezberdinetan mintzatzeko bitartekoak eskaini behar die, hizkeraren egokitasuna aintzat hartuz solaskidearen eta xedearen arabera.

Gramatikaren irakaskuntzan, eskolako gramatika bereziak erabiltzeak ikasleen hizkera hobetzen lagundu dezake (Maia eta Larrea, 2008). Gainera, ikastetxeko maila bakoitzean egiten den edukien antolaketak ahalbidetu behar du askotariko hizkuntza gaitasunak lantzea ikasleekin: ahozkoaren ulermena, idatziaren ulermena, ahozko elkarreragina, ahozko

adierazpena eta idatzizko adierazpena. Horretarako jarduerak egitean, gaitasun bakoitzari bideratutako jarduerak bereizi beharko dira. Eskolaratzeko lehen urteetan ahozkoari garrantzi handia ematen bazaio ere, ikasleak idazten ikasten duten unetik aurrera, haurren ikaskuntzak idatziaren arabera funtzionatzen du. Baina hizkuntzaren erabilera funtzional eta komunikatiborako, ezinbestekoa da ahozko hizkuntzaren erabilerari behar besteko lekua egitea heziketan (Garcia, Imaz, Diaz eta Alegria, 2010). Hau da, ikasleek egunerokotasunean izaten dituzten egoera ezberdinen aurrean komunikatzen ikasi behar dute, idatziz zein ahoz, eta egoeraren arabera erregistro formal edo ez hain formalak erabiltzeko gaitasuna garatuta izan behar dute.

Idiazabal eta Manterolaren (2009) lanean, Vygotsky errusiar psikologoak egindako proposamen psikolinguistikoa aipatzen da. Hor, mintzairak izaera soziala duela azaltzen da, nahiz eta hau norbanako bakoitzak garatzen duen, gizakion artean ematen den elkarreraginaren bidez garatzen baita. Horrela, eskolak berebiziko garrantzia du gaitasun honen lorpenean, ikasle nahiz irakasleak etengabe komunikatzen ari baitira. Izan ere, hizkuntza mintza-praktika da eta ez norbanakoaren adimenaren gaitasun baten heltze prozesua, baizik eta interakzioan eta testuinguruari lotua garatu beharreko zerbait.

Ahozko hizkuntzaren erabileran zein irakaskuntzan motibazioa funtsezkoa izango da. Motibazioari esker, ikasleek ikasten ari diren hizkuntza, kasu honetan, euskara, gertu sentitzeko aukera izango dute, balio afektiboa handituz eta komunikazio bide bezala erabiliz. Izan ere, motibazioak ahozkoan eragina du, mintzairaren lanketak motibazioa elikatzen baitu. Ikaskuntza bermatzerako orduan, irakasleak honen aurrean duen jarrera funtsezkoa izango da; berarengandik sortu behar da ahozkoa lantzeko beharra eta premia, hau lantzeko kontzientzia hartuz eta zabalduz. Beraz, lehenik ahozkoa lantzeko beharra sortu beharko da eta hortik abiatuz, gehiago sakonduko da gaitasun horretan (Olasagarre eta Mugertza, 2015).

Motibazioaren garrantziaz gain, Olasagarrek eta Mugertzak (2015) ahozkoa gelan lantzeko hainbat zergati azpimarratzen dituzte, hauek dira horietako batzuk: ikasleek komunikatzeko gaitasuna garatu behar dute eta idatzizkoaz gain, ahozkoa ere landu egin behar da. Izan ere, hau nahitaezkoa baita gure egunerokorako komunikazio baliabide gisa, eta honen erabilera egoki baterako erremintak ematea funtsezkoa da. Ahozkoa modu egoki batean garatzeko, modu sistematiko eta planifikatuan landu behar da, ondo jakinik nondik hasi behar den eta noraino heldu nahi den ahozkoaren irakaskuntza; motibazioan eragiten du, ikasleek aurrerapausoak ematen ari direla ikus dezakete eta datorrena gogo gehiagorekin egin; curriculumeko edukiak landu, ez da soilik ahozko erabileran zentratzen baizik eta gai

ezberdinak lantzeko aukera ematen du; hizkuntza egoera hobetzeko balio dezake, euskara hizkuntza gutxitu bat denez, orduan eta eragin handiagoa izango du ikasleengan, honen erabilera alderdi ezberdinetan gauzatzeak hizkuntza indartu dezakeelako.

Beraz, euskara hizkuntza gutxitua den heinean, ikastetxeak honen erabilera esparru ezberdinetan garatzea funtsezkoa da. Izan ere, eremu batzuetan, euskara soilik eskola eremuan erabiliko duten hizkuntza bat bezala ikusiko dute eta ahozkoaren lanketaren bidez, hizkuntzaren erabileran eragitea ere lor liteke. Alegia, ikasleek euskara eskolaz gaindiko hizkuntza moduan ikusita, eta ez soilik edukiak lantzeko erabiltzen dutena, eguneroko bizitzako esparru ezberdinetan aplikatzen saiatuko dira, parkean, eskolaz kanpoko ekintzetan, etab. Aldiz, ikasleen eguneroko hizkuntza euskara bada eta tokiko euskalkia erabiltzen badute eskolan nahiz kalean, eskolan bertan ahozkoa erregistro ezberdinetan (batuan, euskalkian, formalki, informalki, etab.) lantzeko aukera izan beharko lukete, hau esparru ezberdinetara zabalduz, egoeraren arabera euskalkia edo euskara batua erabiltzeko aukera izanik.

Horretaz gain, beste errealitate hau ere aurkitu genezake egungo ikastetxeetan, gerta daiteke ikasgelan ama-hizkuntza ezberdinak dituzten ikasle ugari aurkitzea. Hau oztopo bezala ikusi beharrean, indargune bezala hartu eta hizkuntza-aniztasunaz baliatuz euskararen ahozkoaren erabileran motibazioa sustatzeko erabili behar da. Honen helburua, ikasleek etxetik dakartzaten hizkuntzez gain, ukipen egoeran dauden beste hizkuntzak edota atzerriko hizkuntzak ikastea izan behar da, ikasleek jendarteko partaide bezala sentitu edo izan dezaketen beharrei aurre egiteko behar adina gaitasun lortzeko. Beraz, hemen, euskalkien eta euskara batuaren ikaskuntzan bezala, Cummins-en (1983) teoria aplikatu genezake, hizkuntza batean eta bestean gaitasun berberak irakatsi beharrean, argi identifikatu behar dira hizkuntzaren zein ezaugarri diren bateragarriak eta zeintzuk hizkuntza bakoitzean ikasi beharrekoak, honen bitartez, ikasgelan aurkitzen den hizkuntza aniztasuna landuz (Idiazabal eta Manterola, 2009).

Laburbilduz, ezinbestekoa izango da ahozkoaren inguruko azterketa sakonagoa egitea, hizkuntza edukiak zer eta nolakoak diren ulertzeko eta baita hauen irakaskuntza egoki bat bermatzeko ere. Hau ikasleen eta irakasleen arteko elkarreraginean, testu eta diskurtso mailako edukietan eta erabileran gauzatzen den prozesu bezala ulertu behar da. Horretarako aintzat hartu behar da euskalkiari edo batuari emango zaien garrantzia euskararen irakaskuntzaren lehen urteetan, hizkera bakoitzak dituen erabilerak esparru ezberdinetan, ikasleen gaitasunak batean edo bestean mintzatzeko, erregistro ezberdinen lanketa, etab. (Idiazabal eta Manterola, 2009).

3.2. Euskara batuaren sorrera eta euskalkiak

Urte asko igaro diren arren 1968an euskara batua sortzea erabaki zenetik, honen eta euskalkien inguruko eztabaidak gaur egun oraindik bizirik dirauela esan daiteke. Francoren diktaduraren ondoren, euskara batuaren sorreraren helburua zen euskararen osasuna hobetzea. Garai horretan, Euskaltzaindia zen euskara bultzatzen eta babesten zuen erakunde bakarra (Zuazo, 1999).

XX. mendean, mugimendu handia egon zen Euskal Herrian hizkuntza estandar bat sortu eta garatzearen alde. Horrela, Euskaltzaindiak 1968an antolatu zituen Arantzazun, geroago, euskara batuaren sorreraren ardatz izango ziren biltzar nagusiak. Hor finkatu ziren euskara batuaren nondik norakoak, honi lehen aldiz babeska emanik. Hori dela eta, biltzar horiek eta 1968ko data hartzen dira euskara batuaren abiaburu (Maia eta Larrea, 2008).

Garai artan, gatazka nabari egon ziren euskara batuaren sorreraren inguruan, eredu horrek euskalkien erabilera kaltetuko zuela pentsatzen baitzuten askok. Ordura arte, euskalkiak baitziren euskararen agerpen bakarra. Gainera, euskara batua sortzeko bidean, zein izango zen eredutzat hartuko zen euskalkia hautatzeak ere eztabaida ugari sortu zituen. Azkenean, erdialdeko euskalkiak hartu ziren euskara batuaren oinarri. Euskalki hau Gipuzkoako Beterriko hizkerak eta bestetik, Iparraldeko euskalkiaren ordezkari gisa, Lapurdiko kostaldekoak osatzen dute (Maia eta Larrea, 2008).

3.2.1. Euskara batuak eta euskalkiek jendartean izandako bilakaera

Aurretik aipatu dudana bezala, euskara batuaren sorrerak gatazka ugari sortu zituen Euskal Herri osoan zehar. Nabarmenena bizkaitarren haserrea izan zen, erdialdeko euskalkia hartu baitzen euskara batuaren oinarritzat, bizkaiera alde batera utziz. Euskara batuaren eta mendebaldeko euskara edo bizkaieraren arteko aldea nabaria da ezaugarri linguistikoei begira eta eredu berri hau ikastera behartu zituztela uste zuten bizkaitarrek. Urteekin gatazka malgutu egin da eta elkarren osagarritzat hartzen dute askok.

Horrela, gaur egun, euskara batua finkatuta dagoela esan daiteke (hezkuntzan, hedabideetan, administrazioan, etab.) eta honek euskalkiei kalte egin diela pentsatu beharrean, bi hizkeren bizi beharra azpimarratzen da, eremu guztietan. Azken finean, bi ereduak dira guztiz beharrezkoak euskararen iraupenerako. Baina Koldo Zuazok 1988an

bere tesian aipatzen duen bezala (Maiak eta Larreak aipatua, 2008), euskalkiaren auziari gaur egun oraindik irtenbideak aurkitu behar zaizkio. Bi hizkeren artean oreka bat mantendu behar dela aldarrikatzen du, ez bakarrik eguneroko erabileran, baita hauen irakaskuntzan ere. Honetarako, aukera bezala eta hau hobetzeko, hizkera subestandarraren erabilera aldarrikatzen du, hau da, euskalkien esparru-banaketa. Honekin, euskalki propioa duten eremuetan hauen irakaskuntza bat bermatu behar dela aipatzen du eta ez soilik euskara batuaren irakaskuntza, ikasleek parte diren eta beraien egunerokoaren parte den euskalkia lantzeko aukera izan behar baitute (Zuazo, 1988; *apud* Maia eta Larrea, 2008). Beraz, honen lanketa bat ematea funtsezkoa izango da, ikastetxe batzuetan herri hizkerak edota euskalkiak indar handia izango baitu. Beste batzuetan, aldiz, euskarak ez du behar besteko indarririk izango eta horregatik, euskalkia landu beharrean, funtsezkoa izango da euskara batua lantzea.

Beraz, lehen gatazka euskara batuaren sorrera bazen, orain, euskalkia noiz, non, nola, norekin... erabili behar den da eztabaida. Hala, irakaskuntzan ikusi da toki eta egoera guztietan ezin dela berdin jokatu, izan ere, ikastetxea eta hor irakasten dena jendartean integratu nahi baldin bada, bien arteko lotura bat egitea funtsezkoa izango da. Beraz, ikasleen eguneroko hizkeraren eta ikastetxean irakatsi nahi den euskara batuaren arteko lotura bat egin beharko da (Maia eta Larrea, 2008).

Gainera, bi hizkeren arteko lotura hau emateko, euskalkien irakaskuntza ez da soilik ikastetxean bermatu behar den gauza bat. Izan ere, ikasleak bere euskalkia soilik etxean edo eremu gutxi batean erabiltzen duela ikusten baldin badu, hau erabiltzea oso zaila izango da. Herrian egunerokoan egiten dituen ekintzetan ere lekuko euskalkia sustatu beharko da, haurren euskalkiarekiko ikaskuntza eta erabilera eten ez daitezen, euskalkiaren erabileran galera ekarriz. Hau horrela, Koldo Zuazok 1999an, herrian tokiko euskalkiak erabiltzeko lau eremu bereizi zituen:

- Aisialdia: Eskola orduetatik kanpo ikasleek ekintza ugarian parte hartzeko ohitura dute, hauetan interesgarriena eremu horretako euskalkia erabiltzea da. Ikasle gehienek aisialdia partekatuko dute beraien ikasgelako partaideekin eta ohituta egongo dira honetan hitz egiteko herrian herriko hizkera erabiltzera. Horrela, lotura bat egongo da aisialdian eta ikastetxean erabiltzen dutenaren artean.
- Irakaskuntza: Mailaz maila eman behar da euskalkitik baturako bidea. Egokiena irakasleak haurren euskalkia ezagutzea da. Irakurmena eta idazmena euskara batuan egiten diren bitartean, ahozkoa, euskalkia lantzeko tresna bezala erabili

daiteke. Eskolan hizkuntzaren inguruan ikasitakoa, eskolaz kanpo praktikan jartzeko aukera izan behar dute.

- Herri hedabideak: Hedabide nagusiek euskara batua erabili behar duten arren, aukera bat izan daiteke esparru murrizagotan inguru hurbilean aurkitu dezaketen hizkera erabiltzea. Adb: herriko zein bailarako komunikabideetan (irratia, prentsa, telebista, etab.).
- Administrazioa: Ezinbestekoa da herriarekin harremanetan ari denak hauen hizkera ezagutzea eta jakitea. Euskal Autonomia Erkidegoko buletin ofizialetan egokiena euskara batua erabiltzea izango litzateke, euskara ezagutzen duten askok ez baitute euskalkirik. Baina euskalki propioa duten herri batean, adibidez, haurra medikuarengana joaten denean, honekin izaten duen hartu emana tokian tokiko hizkeran izateko aukera izan beharko lukete. Zoritxarrez, hau gaur egun toki askotan ezinezkoa da, askotan, euskarak berak ere presentziarik izaten ez baitu.

Zuazok (1999) nabarmendutako lau eremuek ez dute eragin bera ikasleen euskalkiaren jabetzan eta eguneroko ekintzetan. Lan honetan aztergai dugun testuinguruari dagokionez, eta Zuazoren (1988, 1999) irizpideen arabera, Azkoitian euskalkia izango beharko litzateke haurren aisialdia eta eskolaratzea lotzen duen bitarteko linguistikoa. Horregatik, egunerokoan ikasleek izaten dituzten hartu eman ezberdinek presentzia eta balioa izan beharko lukete eskolan ere, beraien hizkuntza eta errealitatearen arteko etenik eman ez dadin, eta euskalkiaren ezagutza ikastetxeko esparru guztietara zabaldu dadin. Beraz, Azkoitia bezalako herri euskaldun eta euskalkidunean, lekuko hizkeraren eta batuaren arteko gutxieneko lotura bat bermatu beharko da hezkuntza eremuan, eta horretaz gain, baita aisialdian, herri hedabide eta administrazioan ere (azken hiru eremu horiek lan honen aztergaietatik kanpo geratzen diren arren).

3.2.2. Urola Erdi bailararen eta Azkoitiaren datu soziolinguistikoak

Azkoitia herri euskalduna dela ezaguna bada ere, funtsezkoa izango da bertako euskalkiak Azkoitiko Xabier Munibe Ikastolan duen presentzia aztertzea. Horretarako, herriko datu soziolinguistikoak kontuan hartuz, 2021. urtean Soziolinguistika Klusterrak egindako kale neurketan euskarak Azkoitiko kaleetan zuen presentzia izango dugu hizpide. Aipatzekoa da, datuen bilketa Covid 19-ak eragindako pandemiaren ostean izan zela eta nahi edo ez nahi horrek eragina izan dezakeela emaitzetan, izan ere, ikasle askoren euskara erabiltzeko eremua eskola eta kalea dira eta denbora tarte horretan biak eten zirenez, horrek eragin

zuzena izango zuelakoan gaude hizkuntzaren erabileran eta irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan.

Ikerketak herriko eremu ezberdinetako hizkuntza erabilerak jasotzen ditu egun eta ordu ezberdinetan. Emaitzetan zentratuz, Urola Erdi bailararen euskararen kale erabileraren datua ere azaltzen da, hau %63,7koa izanik. Azkoitiko euskararen erabilera, berriz, %66.9koa da, 2018. urtearekin alderatuta bi puntu jaitسي da, baina honen eragileetako bat, esan bezala, pandemia izan daiteke. Gaztelaniaren erabilerak ere nabarmen egin du behera, aldiz, beste hizkuntza batzuen erabilera handitu egin da. Beste datu esanguratsu bat da lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza euskara dutenena; aurreko urteekin alderatuz, hauek nabarmen jaitسي baitira, baina euskararen kale-erabilera handiagoa da. Beraz, esan daiteke, Azkoitian gero eta jende gutxiago dagoela euskara lehen edo etxeko-hizkuntza bezala duena, baina hala ere, honen erabilera hiztun natiboena baino handiagoa dela. Bestela esanda, etxean euskara jaso ez duen jende kopuru batek ere euskaraz hitz egiten du. Honetan guztian kontuan hartzekoa da euskalkiak Azkoitiko herrian duen presentzia eta ematen zaion garrantzia, euskaraz hitz egiteko lehen iturria tokian tokiko euskalkia baita (Soziolinguistika Klusterra, 2021).

Bestalde, umeengan (2-14 urte bitartekoak) zentratuz, hauen euskararen erabilera beste adin tarte batzuetan baino baxuagoa da. Izan ere, ume garaian euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntza batzuen erabilera handia da. Neurketaren arabera, haurrak presente daudenean euskararen erabilera handitu egiten da. Hau da, nagusien artean euskara gutxiago erabiltzen bada ere, haurrak hor badaude gehiago jo ohi dute euskarara. Gainera, hurrei zuzentzerakoan ere euskararen erabilera nagusitzen da gehien bat. Hala ere, aipatzekoa da euskararen erabilerak haurrengan izan duen beherakada, ia hamalau puntu jaitسي baita 2018-2022 bitartean. Beraz, esan daiteke geroz eta erabilera txikiagoa duela euskarak Azkoitiko haurren ahotan (Soziolinguistika Klusterra, 2021).

3.3. Euskara batua eta euskalkia eskolan

3.3.1. Dialektoen joera irakaskuntzan

Gaur egungo eztabaida da euskalkiak jendartean zer funtzio bete behar duen adostea. Gure gizarte elebidun-eleaniztun honetan leku eta une bakoitzean erabili beharreko hizkuntzek eztabaida sortu duten bezala, hizkera ezberdinen irakaskuntzak ere zeresana ematen du. Hezkuntza da baloreak transmititzeko toki esanguratsuenetariko bat, eragina duena ikasleen

garapenean, eta zentzu horretan hizkuntza eredu bat edo beste irakasteak ere baditu bere inplikazioak. Izan ere, hezkuntzaren helburua da ikasleari etorkizunean gizartearen parte izateko prestatzen laguntzea. Horretarako, ingurune horren ezaugarriak aintzat hartu beharko dira eta horren parte izateko baliabideak eskaini, tartean ikasle bakoitzaren euskalkia edota hizkuntza ere aintzat hartuz (Maia eta Larrea, 2008).

Ikastetxearen barnean irakatsi eta erabili beharreko hizkuntza eredu hautatzerako bidean, iritzi kontrajarriak aurkitzen dira, bi jarrera ezberdin nagusituz. Batek, hizkuntza eredu estandarra irakatsi behar dela defendatzen du, eskolako liburuetan dagoena. Honen arabera, euskara batua irakatsi behar da ikastetxe guztietan eta maila guztietan, ikasleen etxeko hizkera aintzat hartu gabe. Beste jarrerak defendatzen du ikasleak ahalik eta hizkuntza eredu gehienez hornitzea, ikaslea egunerokotasunean parte den eremu ezberdinetarako erabilgarria izanik. Hemen, ikasle bakoitzak duen hizkera kontuan hartu eta gainera, baliabide onuragarri bat bezala erabiliko da, ikasleen gaitasunak bultzatu nahian (Maia eta Larrea, 2008).

Euskal Herriko eremu batzuetan euskalkien erabilerak ahozkoan indar handia daukala kontuan hartuta, elkarreragin gehiena ahoz ematen baita, oso gutxitan erabiliko da euskalkia idatzian eta erregistroa ere segur aski ez da formala izango. Horregatik, eskualdeko edo herriko ezaugarriak ere kontuan hartu beharko dira hizkuntzaren irakaskuntzan. Gerta daiteke, ordea, irakasleak tokiko euskalkia ez ezagutzea eta horregatik, ikastetxeak beraien eskura jarri beharko ditu, hau lantzeko baliagarriak izango litzatekeen materialak; ahozkoan, idatzizkoan eta fonetismoan nola jokatu azalduko lituzketenak.

Dena dela, euskalkiaren irakaskuntza itsuak arriskuan jar dezake jendarte batek hizkuntzarekin behar duen batasuna (Maia eta Larrea, 2008), eta horretan adi egotea funtsezkoa izango da. Hau da, oreka bat bilatu behar da herri hizkeraren eta estandarren arteko irakaskuntzan, ikaskuntza esanguratsu bat emateko. Gainera, hizkuntza komunikazio egoera ezberdinetan ematen denez, bere helburuak lortzeko irakasleak baliabide ezberdinak beharko ditu. Beraz, Maia eta Larreak (2008) aipatu bezala, ikastetxeak aintzat hartu behar du inguru euskalkidunetako hizkera ere, erkidego horretako eguneroko zeregin ezberdinetan duen komunikazio balioa dela eta.

Azken finean, eskola adi egon beharko da bere testuinguruan hizkuntza nola erabiltzen den, non dagoen kokatuta eta zer funtziori erantzun behar dion (Maia eta Larrea, 2008). Hau, ez da bakarrik euskalkian zentratu beharko den gauza bat, gaur egun eskoletan geroz eta dibertsitate linguistiko handiagoa baitago eta honen erabilera eta irakaskuntza egoki bat

bultzatzeko, ezinbestekoa izango da ikasle bakoitzaren hizkuntza erabilera non kokatzen den ezagutzea. Beraz, ikasle orok etxetik dakarren hizkuntza ere kontuan hartu beharko da, euskararen ikaskuntza hortik abiaraziz.

3.3.2. Euskararen irakaskuntza Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean

Euskalkiek eta euskara batuak eskoletan duten presentzia aztertzeko bidean, funtsezkoa izango da 236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum orientatzailea zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak honen inguruan duen zer esana ikustea (Eusko Jaurlaritza, 2022). Honek, inguruaren eta ikastetxearen egoera soziolinguistikoa aintzat hartu behar dela aipatzen du, izan ere, Euskal Herrian egoera ezberdinak aurki genitzake eta horren arabera modu batera edo bestera jokatu beharko da. Ezinbestekoa izango da eskolan hizkuntza irakaskuntza egoki bat bermatzeko, bertako hizkerara egokitzea eremu euskaldunetan, eta hortik abiatzea euskara batuaren irakaskuntza.

Curriculumean, hizkuntzaren alderdi sozialari dagokion atalean, euskara batua eta gaztelaniaren dialektoak bereizteaz gain, garrantzia ematen dio euskalkiaren erabilerari eskolan landutako ahozko nahiz idatzizko testuetan, ikasleak hau idazten erabiltzera ohituta ez dauden arren, ahozkoan bizitzako ia esparru guztietan erabiliko baitute beraien tokian tokiko euskalkia (Eusko Jaurlaritza, 2022). Gainera, euskalki guztiak ez dira berdinak eta gaur egun, erabilera on bat egitea zaila da, beraz, ikastetxeetan horretarako baliabideak eskaintzea aukera bat da, aipatzen den bezala, hauek hizkuntza aberasteko bidetzat hartuz. Beraz, ikasleek komunikazio-egoera jakin batzuetan euskalkia erabiliko dute.

Honen aurrean, ikastetxeak hainbat jarrera hartu beharko ditu. Lehenik, beste hizkuntza eta euskalkietan mintzatzen diren pertsonetikiko errespetua izan beharko du. Ikasleak ikasgelaren parte direla sentitu behar dute, hizkuntza pertsonak dugun ezaugarri garrantzitsu eta pertsonaletako bat baita eta horregatik, bere euskalkiarekiko interesa eta onarpena erakutsi behar zaie. Bigarrenik, familia eta gizarte inguruan erabiltzen den euskalkiarekiko jarrera positiboa izan behar da. Hezkuntzak ez du bakarrik ikastetxea kontuan hartzen, baizik eta hori inguratzen eta horren parte diren ezaugarri oro aintzat hartzen ditu. Ikasleentzat familiak eta hura inguratzen duen eremuak berebiziko garrantzia dute eta funtsezkoa izango da ikastetxeak horrekiko errespetua erakustea. Hauei ikasgelaren parte direla sentiaraziz. Gainera, helburu nagusia ikasleak garatu eta modu autonomo batean jardutea lortzea den heinean, hau sustatzea ezinezkoa izango da inguru

euskaldun batean ikaslearen euskalkia bazterten baldin bada (Maia eta Larrea, 2008). Hala, ikasleak une oro bere euskalkiaren gaineko zapalkuntza edo interes falta ikusten badu, hau ikasteko grina kenduko zaio.

Eskolan landuko diren edukiek ere garrantzi handia dute hizkuntzaren garapenean eta 236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak kontuan hartu beharreko alderdi hauek aipatzen ditu: kultur gizartea eta herriaren kultur egitasmoa, ikastetxearen hezkuntza proiektua eta eduki esanguratsuak lantzea. Azken finean, ikasleak une horretan gizartearen parte dira eta beraien inguruarekiko interesa eta ezaugarriak lantzeaz gain, hauek ikaskuntza berriak bereganatu ahal izateko adierazgarriak izan behar dira.

Beraz, ikastetxe bakoitzaren egoera soziolinguistiko ezberdina dagoenez, egokiena planteamendu bat baino gehiago egitea izango litzateke euskalkia lantzerako bidean, Euskal Herriko eskualde edo herri bakoitzeko egoera bakoitza kontuan izanda. Inguru euskalkidunean aldaera hori onartu eta erabiliko da, baina euskarak erabilera baxua duen eremuetan, egokiena, euskara batuarekin hastea izango litzateke (Maia eta Larrea, 2008). Garrantzitsua izango da Curriculumaz gain, eskola bakoitzak bere hizkuntza proiektu propioa izatea, euskararen erabilera sustatzearekin batera, eremu horretako euskalkia eta ikasgelako hizkuntza-aniztasuna aintzat hartzen dituen.

3.3.3. Eskolako hizkuntza-proiektua

Hizkuntza irakaskuntza egoki bat bermatzeko, ezinbestekoa da ikastetxe bakoitzak inguruko egoerara eta beharretara egokitzen den hizkuntza-proiektu propio bat izatea, tokian tokiko hizkera, euskara batua, nahiz ikastetxean aurkitzen den dibertsitate linguistikoa aintzat hartzen dituen. Perez eta Garrok (2018) aipatu bezala, bertan zehaztuko dira hizkuntzak irakasteari, ikasteari eta erabiltzeari loturiko alderdiak. Hau guztia behar bezala aurrera eramateko, irakasle prestatuak behar dira, hizkera ezagutu eta honi behar besteko denbora eta garrantzia eskaintzen diotenak.

Hau horrela, euskalkiak ikastetxean izan beharreko presentzia eta honen txertaketa gauzatzeko bidean, tokian tokiko faktore zehatzak aztertu beharko litzateke eta horien arabera aldatetako ezarri. Konstruktibismoan zentratzen den irakaskuntza bat gauzatu nahi baldin bada, faktore didaktikoei lehentasuna eman beharko zaie, hau da, ikasketa esanguratsua, garapen hurbileko eremua eta motibazioaren lanketa bermatuz. Hau guztiori bultzatzeko, esan bezala, alderdi asko hartu behar dira kontuan, eta lehenik ikastetxearen

inguruan erabiltzen den hizkerak duen nagusitasuna aztertu beharko da. Hortik abiatuta ikastetxearen hizkuntza proiektua gauzatu. Honen bidez, ikasleak egunerokotasunean erabiltzen duen euskalkiari edo beste hizkuntzaren bati eskolan toki handiagoa eskaintzen bazaio, ikaslearen komunikazio ahalmena handituko da, ikasleak egoera desberdinetara egokitzeko gai izanik. Hau dela eta, euskalkiak presentzia handia duen lekuetan, ikasleak komunikazio-efikazia handiagoa lortuko du, eskolan ere, hortik kanpo erabiltzen duen hizkera lantzen baldin badu.

Honen lanketa ez da egun batetik bestera egiten den gauza bat, baizik eta ikastetxearen parte diren esparru ezberdinen arteko elkarlana eskatzen du: familia, eskola, herria, komunikabideak, etab. Lopez del Castillok (1988) bere lanean aipatu bezala, eskola haurren inguruan txertatuta egon behar da, ez soilik hizkuntzagatik, baizik eta honen bizi errealitatea ezagutu behar baitu (Maia eta Larreak aipatua, 2008). Azken finean, ikasleak horren parte dira eta ikastetxean hortik kanpo aurkituko duten errealitatera egokitzen irakatsi behar diete, ikaskuntza eta irakaskuntza hortik abiaraziz. Horrela, ikasleek eskolari beraien gizarte, kultura, familia eta baliabideak eman eta erakutsi ahalko diete, eskolak ikasleari errealitate hauek komunean jartzen irakasteko mekanismoak eskainiz.

Aipatu bezala, inguruaren ezaugarri linguistikoei arreta berezia jarri beharko zaie. Beraz, inguruan euskalkirik ez bada mintzatzen eta komunikatzeko balioa ahula bada, euskara batua erabiliko da, baita jendartea erdalduna baldin bada ere, euskalkiak euskararen ikaskuntza zaildu dezake eta. Euskalkiak jendartean indarra baldin badu, hau da, mintzatzeko dialektoa erabiltzen duten ikasle kopurua handia bada, hauen ezaugarri ezberdinei arreta jartzea eta ikasgelan presente izatea ezinbestekoa izango da, eskualde euskaldunetako eskoletan hain zuzen (Maia eta Larrea, 2008).

Bestalde, ikastetxeak euskara batuarekin batera, euskalkia lantzea ere proposatzen duen proiektu batean, irakasleak proiektua gauzatzeko aintzat hartu behar diren bi faktore daude. Batetik, irakaslearen prestakuntza dialektala. Gerta daiteke irakasleak ikasleen herriko hizkera ez ezagutzea eta hori dela eta, funtsezkoa izango da, honen inguruan interesa eta hau ezagutzeko grina erakustea, honekiko duen jakintza handituz. Bestalde, hauen aurrean erakusten duten sentiberatasunak ikasleek hizkuntzarekiko duten jarreran eragin zuzena izango du. Ikasleek beraien ama-hizkuntzarekiko jarrera positiboa eta hau ezagutzeko nahia dagoela ikusten badute, motibazioa handituko zaie, interesik ez baldin badago, ikasleei hau erabiltzeko eta ikasteko gogoia gutxituko zaie (Maia eta Larrea, 2008).

Goikoetxeak (2003) bere ikerketan aipatu bezala, ikasleek hizkuntzen inguruan duten jakintza bera edo handiagoa izan beharko du irakasleak. Gainera, komenigarria izango da

hauen lanketarako espazioaren erabilera egoki bat egitea, hau da, antolaketa moldakorra izango da, hizkuntza ezberdinak edo berdinak duten ikasleekin taldekatzeak egin ahal izateko. Materiala ere eskuragarri egon beharko da, edozein unetan erabili ahal izateko, euskalkiaren eta batuaren diglosia, kartelak, aurkezpenak, etab. Denbora ere ondo zehaztu behar da, ordutegia moldatuz. Txangoak egiten badituzte ere, hauetan erabiliko duten hizkera aldatu dezakete, adibidez, herriko edo eskualdeko toki batera egiten badute euskalkia indartzeko balio dezake, baina dialektoa ezagutzen ez duten eremu batera joaten badira, euskara batuaren erabilera sustatu dezakete.

Euskalkia landuko duen hizkuntza-proiektu bat garatzeko bidean, ezinbestekoa izango da irakasleak bertako euskalkia ezagutzea. Argi dago, irakasleen prestakuntza egokia ezinbestekoa dela edozein proiektu aurrera eramaterako orduan. Hori dela eta, idealena hauek euskara batua ezagutzeaz gain tokian tokiko euskalkia ezagutzea izango litzateke. Irakasleek inguruan duten euskalkien lanketa eginez, honen ezagutza zabala lortzea da xedea. Hau ez da erraz ematen den gauza bat, beraz, ikastetxeak bere eguneroko ekintzetan eskualdeko edota herriko ezaugarriak aintzat hartzea lagungarria izango litzateke, irakasleen eta ikasleen esku jarriz tokiko euskalkien berezitasunak biltzen dituen materialak, hauen bidez ahozkoarekin, idatzizkoarekin edota fonetismoarekin nola jokatu jakin dezaten.

Horrela gertatzen ez den kasuetarako, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioak IRALE programa jarri du horri behar bezalako erantzuna emateko. Hezkuntza Sailaren programa horren bidez, EAE-ko ikastetxeetako irakasle nahiz Heziketa Bereziko langileak euskaldundu, alfabetatu edota hauen euskara-maila sendotzea eta osatzea bilatzen da. Beraz, programa honen bitartez irakasleek tokiko euskalkia ere ikasteko aukera izango dute (Maia eta Larrea, 2008).

Dena dela, irakasleak tokiko hizkera ikastea ez da erraz gauzatu daitekeen gai bat. Izan ere, irakasle askok ez dute lan egiteko toki finko bat eta batzuetan, eskola batetik bestera maiz aldatu behar izaten dira, ikastetxean egonaldi txiki bat besterik ez eginik. Zentzu horretan, irakasleek egin ditzaketen hainbat ahalegin aipatzen dituzte Maiak eta Larreak (2008): irakasleak euskalkiaren garrantziaz jabetzea, euskara batuaren irakaskuntzan euskalkien hainbat ezaugarri sartzeari, hizkerarekiko errespetua izatea, etengabe zuzentzen ez egotea, forma ezberdinen erabilerak ikasten saiatzea, ikasleari ez zapuztea, etab.

Bukatzeko, Perez eta Garrok (2018) aipatu bezala, ikastetxe bakoitzak bere hizkuntza-proiektua izango du, bakoitza errealitate ezberdin baten aurrean aurkitzen baita, hala nola, egoera soziolinguistikoa, hizkuntza-aniztasuna eta baita ikastetxea bera ere.

Ikastetxea bertan aurkitzen diren hizkuntzez baliatu beharko litzateke, hauek inklusio eta ikasteko baliabide gisa erabiliz. Hala ere, gerta daiteke baliabide edo aukerarik ez izatea guztiak praktikan jartzeko. Beraz, oso garrantzitsua izango da ikastetxeak bere helburuak eta beharrak argi zehaztuta izatea jarraitu nahi duen norabidea zein den jakiteko.

4. Hipotesiak

Lanaren oinarri teorikoak direnak sakon landu eta gero, azterketa hau abiatzerakoan ditugun hipotesiak aurkeztuko dira jarraian, Azkoitiko Xabier Munibe ikastolako irakasle, ikasle nahiz materialetan euskara batuak zein bertako euskalkiak duten presentziari dagokionez:

1. hipotesia: Irakasleek Azkoitikoa ez den euskalki bat izanez gero, ikasleekin nahiz gainerako irakasleekin komunikatzeko euskara batua erabiliko dute gune formaletan. Hau da, bilerak, ikasleei eman beharreko azalpenak, formakuntzak, etab, euskara batuan egingo dituzte. Euskara bigarren hizkuntza bezala duten ikasleekin, honen irakaskuntza euskara batuan hasiko da. Gune ez-formaletan, berriz, irakasle bakoitzak duen euskalkian mintzatuko du, ikasle nahiz irakasleak euskalki horren inguruko ezagutzarik ez badu ere.

2. hipotesia: Ikasleei dagokienez, euskara lehen hizkuntza (H1) edo bigarren hizkuntza (H2) bezala duten ikasleen artean ezberdintasunak egongo dira batu/euskalkiaren erabileran. Izan ere, H2 bezala euskara duten ikasleek euskalkia izango dute erreferentzia bezala eta ondoren, eskolan, euskara batua irakatsiko diete, bien arteko transferentzia egiteko zailtasunak izanik, H2aren errepresentazio ahulagoaren ondorioz (Cummins, 1983). Euskara lehen hizkuntza bezala duten ikasleek herrian tokiko euskalkia erabiliko dute, euskara batua lan formaletan soilik erabiliz, eta bi hizkeren arteko alternantzia errazagoa izango zaie, H1eko hizkera natibotik (Azkoitiko euskalkia) hizkera batura transferentzia errazagoa izango zaielako.

3. hipotesia: Materialei dagokienez, eskolako material guztiak euskara batuan prestatuta egotea aurreikusten da, hau baita testuinguru formalean eta idatziz irakatsi ohi den hizkuntza. Gelako tutoreak euskalkiak lantzeko material zehatz bat prestatzen ez baldin badu, ikasleek ez dute euskalkia esplizituki landuko.

5. Datu bilketa: euskalkien presentzia eskolan

Aipatu berri diren hipotesiak betetzen ote diren aztertzeko, euskalkiek Azkoitiko Ikastola-Xabier Munibe HLHIn duten presentzia eta hauei ematen zaien tokia neurtu da. Ikastetxe hau Azkoitian dago kokatuta eta 1969 sortu zen itunpeko ikastola gisa, herriko

hainbat familiak elizari eta udalari hainbat eraikin eskatu ostean. Hala ere, 1996. urtean publikatu egin zen, Azkoitiko Ikastola-Xabier Munibe izatera pasatuz (Azkoitiko Ikastola-Xabier Munibe HLHI, d.g.). Beraz, ikastetxearen parte diren familia eta profesional ugari herrikoa edo ingurukoa dela aintzat hartuta, hauen lehen hizkuntza euskara izateaz gain herrian tokiko euskalkia erabiltzen dute.

Dena dela, Azkoitiko hizkeraz gain, Euskal Herriko beste eremu batzuetako euskalkiek ere hartzen duten tokia aztertuko da. Izan ere, bertakoak edo hurbilekoak diren irakasleekin batera, bestelako euskalki oso ezberdina duten irakasleak ere badaude, eta askotan ikasleek hizkera horien inguruko ezagutzarik ez dute. Hau horrela, tresna ezberdinak erabiliko ditugu ikasleen erabileraz gain, irakasleen eta ikastetxeko materialen inguruko datuak biltzeko. Ondorengo ataletan daude xehetasunak:

Hemen aurkezten diren datuak Lehen Hezkuntzako graduako Practicum IIIa gauzatu bitartean jaso dira, zehazki, Lehen Hezkuntzako 5. mailako A gelan.

5.1. Irakasleak

Irakasleen inguruko datuak ahal bezain xehe jasotzeko asmoz, bi tresna erabili ditugu. Batetik, behaketa-orria sortu dugu (ikus 1.eranskina) erreferentziazko gelako tutoreak esparru ezberdinetan egiten duen hizkera erabilera neurtzeko. Eta bestetik, ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 4 irakasleri elkarrizketak egin dizkiegu ahoz (elkarrizketak osorik daude ikusgai 2.eranskinean), tutorearen hizkuntza-erabileraz gain, irakasle gehiagoren ikuspuntua ere sartzeko, ikastetxearen argazki zabalagoa lortze aldera.

Behaketa-orriaren bidez, LH 5. mailako A gelako tutoreak duen euskalkien erabilera aztertu da. Izan ere, behaketa honetan, tutorearengan euskalkiak hiru gune ezberdinetan duen presentzia behatu da:

1. Gela barruan ikasleekin.
2. Gainerako irakasleekin gune formal eta ez-formaletan.
3. Gelatik kanpo ikasleekin.

Behaketa-orriaren bidezko datuak aste batean zehar hartu dira. Bete beharreko esparru bakoitzean item ezberdinak daude eta hauek ikastetxean sortzen joan diren egoeren arabera bete dira. Zehazki, hogeita zazpi item aztertu dira.

Behaketa-orriaz gain, ikastetxeko 4 irakasle elkarrizketatu dira aurrez aurre, datu gehiago biltzeko eta irakasle ezberdinen iritzia jasotzeko asmoarekin. Bertan, bakoitzaren euskalkien eta batuaren erabilerak ikastetxeko esparru ezberdinetan duten presentziaren inguruan mintzatu dira. Elkarrizketak burutzeko, irakasleek Euskal Herriko eremu ezberdinetako euskalkia izatea aintzat hartu da, honen bitartez, bakoitzak ikastetxean erabiltzen duen euskalkien eta batuaren aukeraketaren zergatia ikusi nahi izan da. Horretarako, Lehen Hezkuntzan jarduten duten irakasleak elkarrizketatu dira, kontuan izanda, bakoitzak bere herriko tokiko euskalkia duela. Lau irakasle hauek borondatez egin zuten elkarrizketa. Lehenengoa, 5. Maila A-ko tutorea, Ondarroakoa; 6. Mailako bi irakasle, bat Mutrikukoa eta bestea, Azkoitikoa eta 4. Mailako Donostiako irakaslea. Beraz, lehenengoaren euskalkia mendebaldekoa edo bizkaiera bada ere eta beste hirurak gipuzkoarrak izan arren, Ondarroa eta Mutrikuko irakasleek antzeko euskalkia izatea datuak jasotzeko baliagarria izan zitekeela pentsatu da. Izan ere, gerta daiteke batek saioak euskara batuan ematea eta besteak euskalkian, bakoitzak bere arrazoiak izanik. Hauen bitartez, irakasle bakoitzak euskalki propioa duela kontuan hartuta, bakoitzaren erabileraren aukeraketan zerk eragiten duen ikusi nahi izan da, baita ere saioak ematerakoan Azkoitiko euskalkiak hartzen duen presentzia. Hasiera batean, Mutrikuko irakaslearen eta Ondarroakoaren elkarrizketa elkartuta egitea pentsatu bazen ere, azkenean elkarrizketa guztiak banaka egin dira, irakasleen ordutegi arrazoiengatik.

Elkarrizketatutako irakasleen datuak:

Irakaslea/kodea	Jaioterria	Adina	Sexua	Euskalkia
E1_M	Mutriku	31	Emakumea	Mutrikuarra
E2_O	Ondarroa	41	Emakumea	Ondarrutarra
E3_A	Azkoitia	40	Gizona	Azkoitiarra
E4_D	Donostia	37	Emakumea	Nafarra

5.2. Ikasleak

Ikasleei dagokionez, tutorearekin egin bezala, LH 5. maila A gela hartu da erreferentziazat, eta hortaz, bertako ikasleak dira behaketaren abiapuntu. Gela hau 22 ikasleek osatzen dute, hauetako 3 atzerrian jaiok dira eta beste ikasle baten gurasoetako bat erdalduna da; gainerako 18 ikasleen ama-hizkuntza euskara da. Ikasle bakoitzarekin behaketa-orri bat erabili da, euskara H1 edo H2 duten arabera sailkatuz. Horretaz gain, irakaslearen behaketan bezala, euskalkien erabileraren inguruko hiru esparru ezberdin bereizi dira; gela barruan irakaslearekin, gela barruan ikasle artean eta gela kanpoan ikasle artean. Hauetan, hogeita hamahiru item ezberdin aztertu dira.

Behaketa hau ikasle bakoitzari bideratzeko, ikasle bakoitzak eremu ezberdinetan duen jokabidea aztertu da, izan ere, gerta daitekeelako pertsona edo egoeraren arabera euskararen erabilera aldatzea. Hori dela eta, ikasleen behaketa hiru astetan zehar egin da, ikasleen erabilera gela barruan, pasabidean, jolastokian jolasten ari direnean, ahozkoak egitean, irakaslearekin hitz egitean, idazten, etab, aztertuz.

5.3. Materialak

Materialen inguruko datuak biltzeko ere behaketa-orri bat erabili da. Hau ikasleek gelan dituzten liburu eta irakasleak banatzen dizkien fitxa ezberdinei bideratuta egon da. Honetan, tokiko hizkerak eta euskara batuak duen presentzia ikusi nahi izan da. Ikasleek ikasgelan erabiltzen duten liburu bakarra matematika ikasgaikoa denez (gainerako ikasgaietan ez baitago testulibururik), hau hartu da oinarri bezala. Bestalde, material osagarri gisa, euskara lantzeko irakasleak prestatutako bi fitxa ere behatu dira. Atal honetan, besteetan ez bezala, bederatzi item aztertu dira (ikus 3. eranskina).

6. Emaitzak

6.1. Irakasleak

6.1.1. Tutoreari egindako behaketaren emaitzak

Goian aipatu bezala, behaketa orriaren bitartez irakaslearen euskara batuaren eta euskalkiaren erabilera behatu da hiru eremu ezberdinetan: gela barruan ikasleekin, gainerako irakasleekin gune formal eta ez-formaletan eta gelatik kanpo ikasleekin. Atal bakoitzean item ezberdinak zehaztu dira eta hauetako bakoitza ikusi den kopuruaren arabera sailkatu da, hau da, inoiz ez (hau da, %0), noizbait (%20-%60 bitarte), sarritan (%60-%90 inguru) eta beti (%100). Ikus 1. Eranskina behaketa orriari dagokien item ezberdinen datuekin.

Lehenengoan, irakasleak gela barruan duen euskalkien erabilera eta ematen dien presentzia aztertu da. Tutoreak, ikasleen berdina ez den euskalki batean hitz egiten du beti, alegia, bere jatorrizko hizkera, ondarrutarra. Honen ondorioz, ikasleekin izaten duen hartu-emana inoiz ez da euskara batuan, irakasleak beti ikasgela barruan euskalkien erabilera sustatzen baitu. Batuaren agerpen bakarra izan ohi da euskara guztiz menperatzen ez duten ikasleekin, hauek euskalkia ulertzeko zailtasunak izanez gero, euskara batuan hitz egiten duela. Beraz, ulermen zailtasunak direla eta agertu ohi da batua, eta hau sarritan behatu da. Klaseak ematerako orduan, gehienetan euskalkia erabiltzen badu ere, noizbait ikusi dut edukiak euskara batuan azaltzen.

Irakasleak gela barruan beti euskalkien erabilera bultzatzen badu ere, noizbait ikusi dut tokiko euskalkiaren erabilera sustatzen saiatzen. Berak, Azkoitiko euskalkien inguruan duen jakintza ere noizbait ikusi dut, adibidez, irakasleak eta ikasleak duten euskalkia oinarri harturik, une batzuetan ikasletako batzuek irakaslearena ez ulertzea gertatu izan da, honen aurrean, irakasleak bertako euskalkian nola esaten den ezagututa, Azkoitiko euskalkian nola esaten den hitza azaltzen die, horrela ikasleek irakasleak beraien herrian tokiko hizkera ezagutzen duela ikusirik. Aldiz, inoiz ez dut ikusi tokiko euskalkia ezagutzeko baliabideak eskaintzen. Tokiko euskalkiaz gain, noizbait ikusi dut Euskal Herriko dialekto ezberdinen inguruko gutxieneko ezagutza bat zabaltzen saiatzen.

Ikasgela eremu formal bat dela aintzat hartuta, irakaslea beti saiatzen da euskalkia erabiltzen. Ikasleekin, aldiz, sarritan euskara batuaren erabilera sustatu nahi du eremu eta lan-formaletan. Etxerako mezuei dagokionez, hauek sarritan euskara batuan eta gaztelaniaz izaten dira. Inoiz ez dut ikusi euskalkia lantzeko materialak prestatzen ezta ikastetxeko lehen hizkuntza bezala euskara batua erabiltzen, oso gutxitan izaten da lehen hitza euskara batuan.

Bigarrena, irakaslearen komunikatzeko modua gainerako irakasleekin gune formal eta ez-formaletan da. Hemen, ikasleekin gela barruan bezala, beti, euskalkian hitz egiten du. Beraz, inoiz ez dut ikusi ikastetxeko lehen hizkuntza bezala euskara batua erabiltzen, nahiz eta gune informal batean egon. Hau horrela, eremu ez-formaletan (pasabidea, irakasle gela, etab), beti, euskalkien erabilera nagusitzen da.

Hala ere, noizbait ikusi dut, gainerako irakasleek bere euskalkia ulertzeko zailtasunak dituztela ikustean euskara batuan hitz egiten, eta baita ere, hizpide izan du gainerako irakasleekin batu/euskalki gaia. Ikastetxean izaten dituzten bileretan, inoiz ez dut ikusi euskara batuaren erabilera, hauetan norberak bere euskalkia erabiltzen baitu, beti. Gainera, inoiz ez dut ikusi irakasleak prestakuntzarik jaso duenik herrian tokiko hizkera ezagutzeko.

Hirugarrenik, gelatik kanpo ikasleekin. Beti ikasleek ezagutzen ez duten euskalki batean hitz egiten du, beraz, inoiz ez dut ikusi euskara batuan hitz egiten. Hala ere, noizbait ikusi dut euskalkien erabilera sustatzen saiatzen, baina inoiz ez euskara batuaren erabilera. Hau horrela, noizbait ikusi dut ikasle eta irakaslearen artean hizpide batu/euskalki gaia.

6.1.2. 4 irakasleri egindako elkarrizketen emaitzak

Emaitzak Lehen Hezkuntzako 4 irakasleri egindako elkarrizketatik atera dira. E1_M elkarrizketatua Mutrikuarra eta 6. Mailako tutorea da, E2_O elkarrizketatua Ondarrutarra eta 5. Mailako tutorea da, hirugarren elkarrizketatua E3_A, Azkoitiarra eta 6. Mailako tutorea da eta laugarrena, E4_D Donostiarra, 4. Mailako tutorea da. Hauei egindako elkarrizketaren bitartez bost alderdi ezberdinetan ateratako emaitzak azalduko dira: Nongoa den eta euskalkiak bere herrian duen presentzia, euskalki edo batuaren arteko aukeraketa, Azkoitiko euskalkia eskolan eta irakasleen ahotan, Euskara bigarren hizkuntza bezala duten ikasleen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuak eta bukatzeko, Euskara batuaren eta euskalkien auzia. **(2. Eranskina).**

Nongoa den eta euskalkiak bere herrian duen presentzia.

Goian aipatu bezala, E1_M elkarrizketatua Mutrikuarra da eta euskara erabiltzen du bai etxean eta baita kalean ere, hala ere, bere amarekin batzuetan gaztelaniaz hitz egiten du. E2_O Ondarrutarra da eta bere bizitzako esparru guztietan euskara erabiltzearekin batera euskalkia erabiltzen du. E3_A, berriz, Azkoitiarra da eta egunerokotasunean beti euskaraz hitz egiten badu ere, bere aita gaztelaniaduna da. Hori dela eta, aitarekin gaztelaniaz hitz egiten du. Azken elkarrizketatua, E4_D, Donostiakoa da eta bere gurasoak txikia zenean ez zekiten ia euskara, baina, aiton-amonekin bizi zenez, hauekin, euskaraz hitz egiten zuen, beraz, euskaraz nahiz gaztelaniaz mintzatzen da. Euskalkiari dagokionez, azken hau donostiarra bada ere, aiton-amonak nafarrak ziren eta horregatik, euskalkien arteko nahasketa bat du, erdialdeko hizkeraren eta nafarraren artean.

Euskalkien erabileran, E1_M elkarrizketatuak aipatzen du herrian bertan euskalkia nagusitzen bada ere, hau nagusiengan gehiago ematen dela, hau da, hezkuntza munduan ez dagoen jendeari euskara batua gehiago kostatzen zaiola, hori dela eta, ikasle edo txikiengan, euskara batua gehiago ikusten du, nahiz eta bertan, herrian tokiko euskalkia nagusitu. E2_O-n eta E3_A-n herrietan biztanle ia guztiek euskalkia erabiltzen dute. Donostian, berriz, oso presentzia txikia duela aipatzen du, eremu batzuetan agian ikus daitekeela, baina gehien bat euskara batua erabiltzen dela dio.

- Euskalki edo batuaren arteko aukeraketa

Elkarrizketatutako lau irakasleek lau urte edo gehiago daramatzate Azkoitiko Xabier Munibe Ikastetxean. Batu eta euskalkiaren erabileraren inguruan galdetzean, guztiak aipatzen dute ikastetxean ikasle nahiz ikasleen ahotan herrian tokiko euskalkia nagusitzen dela. Honen aurrean, E3_A elkarrizketatuak bera Azkoitiarra izanik, euskara batua sortu zenean bere onura izan zuela uste du, hau euskaldunak bateratzeko sortu zelako eta literaturarako oso lagungarria izan zelako. Hala ere, gaur egun, leku askotan euskalkia galtzen ari dela eta bera bertako irakaslea izanda eta euskalkia ezagututa, hau bultzatu behar duela pentsatzen du. Horrela, bera ikasleen erreferente izateko, izan ere, askok ez baitaukate euskalki hori etxean ikasteko aukerarik. E4_D-k ere aipatzen du, aldaketa handirik ikusi ez duen arren, orain dela urte batzuk ikasleek erabiltzen zituzten hitzetako asko orain ez dituztela erabiltzen.

Ikasgelan euskalkia edo batua erabiltzeari dagokionez, E2_O-k irakasle moduan aipatzen du, berak ariketa oso zailak direnean euskara batura jotzen duela baina bestela, ondarrutarra oso presente duela ikasgelan eta guraso batzuk eskertu egiten diotela. Bai aipatzen du, ikasle atzerritarren bat izanez gero, gaztelaniara jo baino lehen euskara batura jotzen duela. Honen moduan, E1_M-ek adierazten du berak ere gehien bat bere euskalkia erabiltzen duela. Hala ere, ikasleek hau ulertzeko zailtasunak izanez gero, moldatu egiten duela. Honen aukeraketaren arrazoi gisa euskara batuari ikusten dion formaltasun puntua eta euskalkiek ematen dioten naturaltasuna dira. Euskara batuan hitz egiten duenean artifiziala iruditzen zaiola aipatzen du. E3_A elkarrizketatuak ere euskalkia erabiltzen duela aipatzen du eta norbaitek hau ulertzeko zailtasunak izanez gero, euskara batura jotzen du. Gainera, hitanoak gaur egun Azkoitian duen presentzia gutxitzen ari dela aipatzen du. Izan ere, mutil askok hau erabiltzen badute ere, nesken artean kopurua oso baxua dela dio. Honen aurrean, irakasle bezala duen arduratik hau indartzea beharrezkoa ikusten du. Aurreko hirurak ez bezala, E4_D elkarrizketatuak, klase barnean euskara batua erabiltzen du, hau garbiagoa dela uste baitu eta ikasleek entzuten duten bezala idatzi dezaketelako. Idazterakoan aipatzen du ikasle askok esaten duten bezala idazten dutela, hau da, azkoitiarrez, eta horren aurrean bere euskalkian hitz egiten hasten bada ikasleak gehiago nahastuko dituela pentsatzen du. Beraz, x eta x-ren artean joera kontrajarria antzeman daiteke alderdi honetan; batentzat naturaltasuna eta hurbiltasuna dena, bestaren hitzetan zailtasun erantsia da.

Hizkera aldatzen duten edo ez erantzutean, E3_A elkarrizketatuak argi adierazi zuen bera berdin egoten dela gela barnean edo kanpoan. Baina gainerako hiru elkarrizketatuak

beharrezkoa ikusten dute aldaketa hori ematea. Izan ere, E1_M-k aipatzen du, gela barnearen eta patioaren artean horma bezalako bat dagoela eta beharrezkoa dela hura apurtzea, ikasleek irakaslearekiko konfiantza izateko. Gainera, E2_O-k esaten du ez garela berdinak barnean eta kanpoan, hizkuntza eta gorputzaren jarrera ere aldatu egin behar direla, ikasleak jakin egin behar dutela zertarako dauden barnean eta zertarako kanpoan.

- Azkoitiko euskalkia eskolan eta irakasleen ahotan

Elkarrizketatu guztiek euskalkiak eskolan sekulako presentzia duela aipatzen duten arren, E3_A elkarrizketatuak bertakoa izanda, ikuspegi kritikoago bat adierazten du honen aurrean. Irakasle Azkoitiar asko daudela aipatzen du, baina hauetako batzuk ez dutela euskalkia erabiltzen eta pena handia ematen diola dio. Gainera, berak oraindik ez duela euskara batuan hitz egiten baina ezinbestekoa izango balitz egingo zuela. Hala ere, beste bide batzuk aurkituko lituzke euskalkia lantzeko. Ikastetxeko ekintzetan ere presentzia handiagoa izan beharko lukeela uste du. Honen aurrean, E1_M-k euskalkiak herrian eremu guztietan ikus daitekeenez, honen lanketa zehatzaren beharrik ez du ikusten, hala ere, udal mailan geroz eta kezka handiagoa dutela gai honen inguruan. Bestalde, E2_O-k presentzia baduela esaten du, izan ere, orain dela gutxi Azkoitiko pertsonaia ospetsu baten inguruko lana egin zutela, eta horrek ikasleak herriarekin harremanetan jartzeko balio duela.

Ikastetxeak gainerako euskal eskola publikoak bezala, euskara batuaren ezinbesteko erabilera bultzatzen du. Hala ere, euskalkiak bultzatzerako bidean, E2_O elkarrizketatuak, aipatzen du, ikastetxeko hainbat kidek hikaz egitea eskatu zitetela, hau dakiten irakasleei, azken urteotan galtzen ari baita. Beraz, horren ondorioz, hika dakiten irakasleak hau erabiltzen dute, kalean ikasleek ikusten ez baduten arren, eskolan ikus dezaten.

Irakasleak lana egiten duten herriaren tokiko hizkera ezagutzeko behararen aurrean, E1_M-k hasieran zaila egiten dela aipatzen duen arren, denborarekin egin egiten zarela dio. Gainera, irakaslearen eta ikasleen euskalkien inguruan ematen diren gatazkak sortzen diren heinean, ikasleek beraiena aberasteko erreminta baliagarria izan daitekeela uste du. E3_A elkarrizketatuak bai aipatzen du herrian tokiko hizkera irakasle guztiak ezagutzea oso zaila izan daitekeela, izan ere, gaur egungo hezkuntza sistemarekin ordeztu dagoen irakaslea egun bakoitzean herri ezberdin batean egon daiteke eta euskalki hauek guztiak ezagutzea ezinezkoa da, beraz, jakiten ez badute ere, errespetatzea funtsezkoa ikusten du. Hau alde batera utzita, bai aipatzen du bertakoak diren irakasle batzuekin haserre dagoela, hitanoa azken urteetan galtzen ari delako eta ez direlako kontziente honek ekar dezakeen kalteaz. E4_D irakasleak aipatzen du Azkoitiko hitzez osatutako hiztegi bat eman ziotela eta hor irakasle bakoitzak erabakiko duela, arduratu edo ez bertako euskalkia ezagutzen.

- Irakasleen arteko komunikazioa

Lau elkarrizketatuetatik E4_D da ikasleekin euskara batua erabiltzen duen bakarra, baina irakasleekin harremanetan erabiltzen duenaren inguruan galdetuz, euskalkia erabiltzen duela aipatzen du. Hori dela eta, gainerako irakasleak ikasleekin euskalkian hitz egiten duten bezala, irakasleekin ere bai. Beraz, irakasleen arteko komunikazioa alderdi guztietan, euskalkien bidez ematen da. E1_M-k esan bezala, erosoago sentitzen da hau erabiltzen duenean eta gehienetan gainerako irakasleekin eremu ez-formaletan egoten dela dio eta berea sentitzen duen euskalkia erabiltzea gustatzen zaiola. Bai aipatzen du, gurasoekin izaten dituen bileretan hauek ez badute euskalkia ezagutzen edo ulertzeko zailtasunak dituztela ikusten badu, batura jotzen duela.

- Euskara H2 bezala duten ikasleen kasua

E1_M-k uste du orokorrean etxetik hizkuntza (euskara) ez bada lantzen zailtasunak izango dituztela, euskara batuaren eta euskalkien ikaskuntzan. Bere kasuan, bi ikasle mota dituela dio: etxetik ateratzen ez diren ikasleak eta kalera ateratzen direnak. Lehenengoak, eskolan ere baztertuak direla aipatzen du, euskalkia ikasteko eta erabiltzeko zailtasunak izanik. Bigarrenak, berriz, kalean gehien bat lagunekin euskalkia erabiltzen dute eta horrek eskolako euskararen ikaskuntza errazten duela dio. Honekin jarraituz, E3_A elkarrizketatuak ere kaleko hizkuntzak eragin zuzena duela dio. Uste du, haurrak kalera ateratzen direnean entzuten eta erabiltzen duten hizkuntzaz jabetuko direla, hemen gurasoek izaten dituzten harremanak ere eragina izanik. Gurasoekin jarraituz, bi jarrera mota bereizten ditu. Alde batetik, pasiboak, non hauei ez zaien inporta haurrak gaztelaniaz edo euskaraz hitz egiten duen. Eta horrek, nahi edo ez nahi, haurrak batua eta euskalkien inguruko jarrera baztertzaila izatea ahalbidetzen duela dio. Bestetik, nahiz eta erdaldunak izan, haurrak euskarazko giro batean hezi nahi dituzten guraso proaktiboak daude eta horrek eragiten duela umeei euskararekiko duten jarreraren dio. Gainera, E1_M elkarrizketatuak bai aipatzen du bere ikasletako batek euskara ikastea gorroto duela. Beraz, honen aurrean zaila egiten zaiola nola jokatu jakitea.

E2_O elkarrizketatuak, berriz, euskalkien ikaskuntzan zailtasun handirik ikusten ez baldin badu ere, euskara batuaren erabileran bai ikusten ditu. Izan ere, egunerokotasunean euskalkia erabiltzen dutela une oro aipatzen du eta horrek idazterakoan batuan zailtasunak izatea eragiten die eta hor irakasle bezala uste du sekulako lana egin behar dutela. Beraz, honen aurrean, E3_A elkarrizketatuak aipatzen du euskara bigarren hizkuntza bezala duten ikasleekin, honen irakaskuntza euskara batutik hasi behar dela, hau da, eskolan aurkitzen duten material ezberdinen inguruko ulermena izatea ahalbidetuz.

Euskara lehen hizkuntza edo bigarren hizkuntza bezala duten ikasleen artean, E1_M-k lehen hizkuntza euskara duten ikasleak, hau da, guraso biak euskaraz hitz egiten dutenak, batuan hitz egin beharrean euskalkian hitz egiten dutela dio, gela barnean nahiz kanpoan, hau baita egunerokotasunean erabiltzen duten hizkuntza. Euskara lehen hizkuntza bezala ez dutenak, batetik, bat erdalduna eta bestea euskalduna denean, hauek gehienetan euskara eta euskalkia menperatzen dutela dio. Bestetik, biak erdaldunak edo atzerritarrak direnean, idatzizko ekoizpenetan asko nabaritzen dela dio eta laguntza eskaini behar zaiela. E2_O-k aipatzen du guraso erdaldunak edo atzerritarrak dituztenen artean gaztelania geroz eta gehiago nabaritzen dela eta ez hori bakarrik, euskaraz badakitenen artean ere, geroz eta gehiagok jotzen dutela gaztelaniara.

E3_A-k eta E4_D -k biak txikitik errealitate hori bizi izan zutela aipatzen duten arren, iritzi kontrajarriak dituzte. Batetik, lehenengoak dio ez zuela ezberdintasunik bizi eta besteak, berriz, ama-hizkuntza bezala gaztelania edo beste hizkuntza bat zutenek, euskara ikastetxean erabiltzeko hizkuntza bat bezala soilik ikusten zutela eta hau, gaur egun ere oraindik gertatzen dela dio. Aipatzen du batzuei gertatu ahal zaiela geroz eta euskara gehiago egin orduan eta bertakoago sentitzea eta bigarren hizkuntza bezala duten ikasleek agian ez diotela ematen behar besteko garrantzirik horri, euskara soilik ikastetxean landuko duten hizkuntza bat bezala ikusi ahal baitute.

- Euskara batuaren eta euskalkien auzia

Lau elkarrizketatuek aipatzen dute etorkizunera begira funtsezkoa dela euskalkiak zaintzen jarraitzea, baina irakasle bezala, E1_2023-k eta E2_2023-k bai aipatzen dute euskara batuaren irakaskuntzaren garrantzia. Hau da, beraien lana irakasle bezala ikastetxean euskalkia bultzatzea bada ere, erremintak eta baliabideak eskaini behar dietela ikasleei idazteko edo entzundako edozer ulertzeko euskalkitik baturako transferentzia egiten jakin dezaten.

Bukatzeko, E4_2023-k aipatzen du azken urteetan dena globalizatzen ari den gizarte honetan, aldatu beharreko gauzak daudela eta horretarako, jendea kontzientziatzen hasi behar dela. Honen barnean, Hezkuntza sisteman euskara batuaren ikaskuntzari izugarritzko garrantzia ematen zaiola aipatzen du, baina aldi berean, norberarena dena, sustatu, bultzatu eta errespetatu egin behar dela dio, azken finean, dena baita euskara, bai batua baita lekuko hizkerak ere.

6.2. Ikasleei egindako behaketaren emaitzak

Ikasleei egindako behaketaren emaitzak, lehen aurreratu bezala, bi taldetan banatzen dira. Batetik, euskara lehen hizkuntza bezala duten ikasleak ditugu (n=19) eta bestetik, euskara bigarren hizkuntza bezala duten ikasleak (n=3). Hala, item batzuk soilik azken hauei bideratuta daude. Taulan ikasle guztien emaitzen laburpena jaso da; hau da, 22 ikasle horietatik, zenbatek betetzen duen item bakoitza eta zer maiztasunez.

Euskalkiaren erabilera ikasleengan	H1 euskara				H2 euskara			
	Inoiz ez	Noizbait	Sarritan	Beti	Inoiz ez	Noizbait	Sarritan	Beti
Gela barruan irakaslearekin								
Ahoz euskalkia erabiltzen du				19			1	2
Idatziz euskalkia erabiltzen du	6	10	3				3	
Euskalkia ahoz erabiltzeko zailtasunak ditu	15	2		2	1	1	1	
Batua ahoz erabiltzeko zailtasunak ditu	5	9	5		1		1	1
Idatzian batua behar bezala erabiltzen du		5	9	5	2	1		
Idatzian batua erabiltzeko zailtasunak ditu	6	11	2					3
Elkarrizketa ez-formaletan euskara batua erabiltzen dute	19				3			
Irakaslearekin dituen elkarrizketa formalak euskara batuan izaten dira	19				3			
Irakaslearekin eskola orduan izaten dituzten hartu-emanetan euskalkia erabiltzen dute				19				3
H2 euskara dutenek irakaslearekin euskara batuan mintzatzeko zailtasun gehiago dituzte					2			1
H2 euskaradunek tokiko euskalkiaren inguruko gutxieneko jakintza bat dute						1		2
Euskalkiaren inguruan jakintza gehiago izateko nahia erakusten dute	5	8	5	1	1	1	1	
Irakaslearen euskalkia ulertzeko zailtasunak erakusten dituzte	5	11	3			2	1	
Ahoz batua eta euskalkia nahasten dute, irizpide argiegirik gabe.	10	8	1		2	1		
Gela barruan ikasle artean	Inoiz ez	Noizbait	Sarritan	Beti	Inoiz ez	Noizbait	Sarritan	Beti
Ikasleek euskara saioetan euskara batua erabiltzen dute beraien arteko elkarrizketetan	19				3			

Ikasleen arteko elkarrizketa euskalkien bidez ematen da				19				3
H2 euskara dutenei, euskalkitik baturako aldaketa gehiago kostatzen zaie							1	2
Euskara H2 bezala duten ikasleek euskalkia ikasteko ahalegina egiten dute						1	1	1
Euskalkien erabilera zuzenen inguruan mintzatzen dute	7	6	6		2		1	
Euskalkien erabileran ikaskideren batek akatsen bat eginez gero zuzendu egiten dute	11	5	2		3			
Euskalkia ulertzen ez duten beste ikasleekin jarraian gaztelaniara pasatzen dira, aurretik euskara batuan hitz egiten ahalegindu gabe.	17	1	1			1		2
H1 eta H2 euskara duten ikasleen artean ezberdintasun handia dago euskalkiaren erabileran: H2 euskaradunek zailtasuna dute euskalkian aritzeko.						2		1
Gela kanpoan ikasle artean	Inoiz ez	Noizbait	Sarritan	Beti	Inoiz ez	Noizbait	Sarritan	Beti
Ikasleen eta gainerako klaseetako ikasleen arteko elkarrizketa euskalki bidez ematen da				19				3
Ikasleen arteko elkarrizketak euskara batuan izaten dira	18	1			3			
Euskalkia ulertzen ez duten beste ikasleekin jarraian gaztelaniara pasatzen dira, aurretik euskara batuan hitz egiten ahalegindu gabe.	15	4				1		2
H2 bezala euskara duten ikasleek euskalkia edo batua erabili beharrean nahiago dute gaztelaniaz hitz egin						1	2	
Gela kanpoan gaztelaniaren erabilera nabarmen hazten da	19				1	2		
Ikasle bakoitzak euskalkiaren inguruan duen ezagutza eta erabilera gehiago nabarmentzen da.	5	9	4	1	2		1	
Norbaitek gaztelaniaz egiten duenean, inguruko guztiak gaztelaniara pasatzen dira.	18	1			1	2		
Norbaitek gaztelaniaz egiten duenean, ingurukoek euskalkian jarraitzen dute, elkarrizketa elebidunak mantenduz.			3	16	2	1		
Norbaitek batuan egiten badu, gainerakoek euskalkiari eusten diote.				19				3

Gaztelaniara ez jotzeko adierazpenak entzun daitezke ikasleen artean.	3	5	6	5	2	1		
Batura ez jotzeko adierazpenak entzun daitezke ikasleen artean.	16	2		1	2	1		

6.3. Material behaketaren emaitzak

Behaketa honen bitartez, Azkoitiko euskalkiak edota Euskal Herriko beste euskalkiren batek ikas materialetan duten presentzia ikusi nahi izan da. Emaitza guztiak 4.eranskinean daude ikusgai. Emaitza esanguratsuenak laburtze aldera, inoiz ez dut ikusi ikasleen materiala hauen hizkerara egokituta dagoenik, izan ere, eskolan erabiltzen den lehen hizkuntza eta aipatu bezala eremu formalean ibili beharrekoa, euskara batua da. Beraz, beti daude euskara batuan idatzita eta ez dut ikusi, materialak ikasleen euskalkien inguruko jakintza zabaltzeko eginda daudenik. Idatzizko material guztia batuan dago beti eta ez dute euskalki ezberdinetan idatzitako testurik erabiltzen. Entzumen eta ulermen jardueri dagokionez, hauetan noizbait euskalkia erabiltzen dutela ikusi dut, jarduera hauekin umeen inguruko errealitatea eskolara hurbiltzen saiatzen baitira eta herrian tokiko euskalkia erabiltzen duten entzumenak egin izan dituzte.

Gainera, irakasleak prestatutako materiala ere ez dago tokiko hizkerara egokituta eta ikasleei ere ez diete beraiek prestatutako materiala euskalkian egiten uzten, nahiz eta, goian aipatu bezala, zailtasun handiak dituzten batu eta euskalkien arteko bereizketa egiteko. Hala ere, noizbait, Euskal Herriko dialektoak aurkitu izan ditut material batzuetan, hala nola, matematikako liburuan Bizkaiko euskalkian erabiltzen diren hitz batzuk aurkitu daitezke.

Beraz, aztertutako eremu bakoitzean erabilera ezberdina dela ikusi da. Irakasle eta ikasleek egunerokotasunean izaten dituzten jarduera gehienetan euskalkia erabiltzen dute (eta batua batez ere idatzian); irakasle eta ikasleen euskalkia ezberdina izan arren. Halere, ikastetxeak eskainitako materialetan batua da nagusi. Izan ere, Euskal Herriko testuliburu guztietan euskara batua erabiltzen da oinarri. Irakaskuntza honek, nolabait, ikasleen euskalkien eta euskara batuaren jabeakuntza zailtzen duela ikusi da. Egindako behaketan argi ikusi baita, euskalkitik baturako bidea erraztu beharrean, salto izugarria ematen dela batetik bestera eta ikasleetako askok ez daukate baliabide nahikorik hau behar bezala egiteko, askotan batua eta euskalkia nahastuz.

7. Ondorioak

Emaitzak atalez atal xeheki azaldu eta gero, lan honetan egindako azterketak uzten dituen ondorio nagusiak ekarriko ditugu. Azken atal hau bi zatitan banatuko da. Lehenik, aztertu diren hiru eremuei dagokienez proposatutako hipotesiak berrartuko ditugu, eta gure emaitzetan oinarrituta, horiek baieztatu edo ezeztatzeke modua dagoen ikusteko. Bestetik, lan osoaren inguruko ondorio orokorrak aterako dira.

Hasteko, lehenengo hipotesia irakasleengan zentratzen da. Honetan, irakasleek ikasleekin eremu formaletan izaten dituzten harremanetan euskara batua erabiliko dutela aipatzen da. Hipotesi hau Azpeitiko ikastetxearen kasuan zehazki, ez da betetzen. Aurrera eramandako behaketan eta irakasleei egindako elkarrizketetan ikus daitekeen bezala, irakasleek eremu formal nahiz ez-formaletan beraien tokian tokiko euskalkia erabiltzen dute. Hala ere, E4_O irakasleak bai aipatu zuen ikasgelan ikasleekin euskara batua erabiltzen zuela. Erabaki hau garbiagoa eta idazten ikasteko errazagoa izan daitekeelako dela dio, ikasleek jada zailtasun asko izaten baitituzte beraien euskalkitik baturako aldaketa egiteko, eta bere hizkera sarteak prozesua asko zaildu baitezake.

Bestalde, irakasleen inguruko beste hipotesi bat da euskara H2 bezala duten ikasleekin honen irakaskuntza euskara batutik hasiko dela. Elkarrizketetan eta behaketan ikus daitekeenaren arabera, aurreikuspen hau zuzena da. Izan ere, euskara menperatzen ez duten ikasleei, honen irakaskuntza batua ez den beste euskalki batean izateak hizkeren arteko gatazka kognitibo bat ematea eragin dezakeela uste dut. Ikasle hauek eskolako material ezberdin, egin beharreko lan, nahiz euskal komunikabide nagusietan hizkera batua jasoko baitute, baina Azkoitian gertatzen den moduan, kaleko nahiz eskolako beste bazter guztietan bertako euskalkia aurkituko dute. Hori dela eta, irakasleek hizkuntzaren irakaskuntza euskara batutik hasi behar dela uste dute, eta horrela egiten dutela adierazi dute elkarrizketetan.

Irakasleen inguruko azken hipotesiak dio irakasleak gune ez-formaletan bakoitzak bere euskalkia erabiliko dutela, nahiz eta ikasleek honen inguruko ezagutzarik ez izan. Egindako behaketan ikusi eta elkarrizketetan azaldu didatenaren arabera, irakasle guztiek tokian tokiko euskalkia erabiltzen dute gune ez-formaletan, hau ez da soilik irakasleen artean ematen, ikasleekin ere bai. Guztiek aipatu dute erosoago sentitzen direla beraien euskalkia erabiltzen, hurbilago sentitzen baitira ikasleengandik, beraiena delako. Azken finean, gune ez-formal batean egoteak ikasleak eta irakasleak beraien ohiko espazio batetik ateratzea ekar dezake eta ikasgelan ematen ez diren egoera batzuk ematea. Hori dela eta, funtsezkoa

da ikasleak irakasleengan konfiantza osoa izatea eta guztiek aipatzen dute, bakoitzak bere euskalkia erabiltzeak irakasleak nahiz ikasleak erosoago egotea dakarrela, hurbilago eta naturalago, azken batean.

Bigarrenik, ikasleei egindako behaketaren inguruko hipotesiak ditugu. 2. hipotesi honetan, euskara lehen edo bigarren hizkuntza bezala duten ikasleengan euskararen erabileran ezberdintasunak egongo direla aipatzen da; azken hauek euskalkia izango dutela erreferentziatzat eta hortik baturako transferentzia zailagoa egingo zaiela, H2aren errepresentazio nolabait ahulagoaren ondorioz (Cummins, 1983). Hemen behaketan jasotako datuen arabera, bien arteko datuen aldea hain handia ez izan arren, hipotesia bete egin dela esan dezaket. Erabilerari dagokionez, ikasle guztiek (euskara H1 zein H2 gisa dutenek, alegia) euskalkia barneratuta dute, ikastetxeko eremu ia guztietan honen erabilera nagusitzen baita. Aldiz, egia da, H2 euskaradunek gaztelaniaz hitz egiten duten beste ikasle batzuekin egotean, hizkuntzaz aldatzeko joera handiagoa dutela egoera batzuetan eta baita ere, ikusi dudanaren arabera, zailtasun handiak dituztela euskara batuan idazteko, euskalkia guztiz barneratuta baitute. Bestalde, euskara lehen hizkuntza bezala duten ikasleek euskalkia erabiliko dutela zuzena da, batua soilik lan formaletan erabiltzen baitute. Aipatu bezala, euskara bigarren hizkuntzatzat duten ikasleei batetik besterako transferentzia zaila egiten baitzaie ere, behaketan ikusi ahal izan dut lehen hizkuntza euskara duten ikasleei ere zaila egiten zaiela. Eta hori ez zen aurreikusten, ama-hizkuntzaren baitako hizkera ezberdinen artean transferentzia zuzena espero genuelako. Hau guztia ikasleek gelan egindako lan formaletan ikusi ahal izan dut, baita ere ahozko formalak egitean. Honen erantzule, ikasleek euskara batuan egiten duten jarduera kopuru txikia izan daiteke edota euskara batua erabiltzen duen erreferente zuzenik ez izatea. Izan ere, irakasleak lanak euskara batuan egitea eskatzen badie ere, ikasleekiko interakzioa euskalkian egiteak prozesua zaildu egiten duela uste dut, ikasleek ez baitute beraien euskalkia eta euskara batua ongi bereizten.

Azkenik, 3. hipotesiari helduz, ikastetxeko materialen ingurukoa, aurreikuspena zen eskolako ikas material guztia euskara batuan egotea. Ikusi eta behatu dudanaren arabera hipotesi hau zuzena da. Hor aipatzen den bezala, batua baita testuinguru formaletan eta irakastean ibili beharreko hizkuntza. Hemen, Azkoitia bezalako herri batean, non ia ikasle gehienek euskalki propioa duten, Zuazok (1988) bere tesian aipatutakoa oinarri bezala hartu daiteke. Honek, euskalki propioa duten eremuetan hauen irakaskuntza bermatu behar dela aipatzen du. Beraz, ikasleen eskolako materiala hauek euskara batua ikasteko erreferentzia bakarra den heinean, honen irakaskuntzaren banaketa bat egin daiteke. Batetik, euskalkia egunerokotasunean erabiltzen duten hizkera dela kontuan harturik, hau indartzeko lanak

egiten erabili dezakete, adibidez, ahozkoa lantzerakoan. Bestalde, ikas material gehiena euskara batuan dagoenez, idatzizkoa lantzeko honetaz baliatu daitezke. Hala ere, Azkoitiko kasuan batuaren lanketa sakonago baten beharra ikusi dut, ikasle askok zailtasunak baitituzte euskalkitik baturako aldaketa egiteko. Agian, hasiera batean ikas materialen bitarteko irakaskuntza euskara batuan egin beharko litzatekeela uste dut eta honen inguruko jakintza esanguratsuago bat dutenean, ezagutza hori euskalkia indartzeko baliatu.

3. hipotesiaren baitan, espero izatekoa zen gelako tutoreak euskalkiak lantzeko material zehatzik prestatzen ez baldin badu ikasleek ez dutela euskalkia landuko. Behaketa egin duduan hiru asteetan zehar, ez dut ikusi euskalkia lantzerantz bideratuta dagoen materialik. Azkoitia eta honen inguruak ezagutzeko jarduerak egin badituzte ere, inoiz ez dute euskalkia berriaz landu. Honek gaur egungo euskalkiaren errealitatea islatzen duela pentsatzen dut. Euskara eta munduko edozein hizkuntza urteak igaro ahala aldatzen doaz, eta modu berean, euskalkiak ere orain dela urte batzuetan erabiltzen ziren hitz berezi asko galtzen joan dira. Irakasle batekin hizketan aipatu zidan ikasleengan aldaketa hori nabaritu zuela eta oraingo ikasleek Azkoitian zituzten hitz berezietako asko jada ez dituztela erabiltzen. Gainera, hika ere galtzen ari dela nabarmentzen dute irakasleek eta ikastetxean hau berreskuratzeko erabaki batzuk hartu ziren. Hala ere, oraindik ez da aldaketa nabaririk ikusi. Ikastetxean egiten denak ikasleengan eragina izateko beharrezkoa da aurretik adostasun handiz erabakiak hartzea, gero bestela ezin dira praktikara sistematikotasunez eramanez. Irakasleekin izandako elkarrizketetan antzeman ahal izan da zenbaitek jarrera ezkorra dutela hitanoaren berreskurapenarekiko, izan ezezagutzagatik edota eszeptikotasunagatik.

Atal honekin bukatzeko, lan osoaren inguruko ondorioak aterako ditut. Gradu Amaierako Lan honekin aztertu nahi zen euskara batuak euskal eskoletan jada duen tokia aintzat hartuta, Azkoitia bezalako herri euskaldun batean, ikastetxeak euskalkiari zein eta nolako tokia ematen dion. Izan ere, ikasle askok euskalkia ama-hizkuntza bezala badute ere, beste askok ez daukate hau ikasteko eskola ez den beste eremurik. Beraz, funtsezkoa izango da euskalki eta batuarekin une bakoitzean nola jokatu jakitea.

Azkoitiko ikastolaren kasuan, ume gehienak mantentze-programan daudela kontuan hartzekoa da, ikasleriaren gehiengoa etxetik euskalduna delako. Honetan, Manterola eta Berasategik (2011) aipatu bezala, hizkuntza gutxituaren irakaskuntza bultzatzen da. Euskara hizkuntza gutxitua den heinean, honen barnean, bi aldaera nagusi aurkitu genezake, batua eta euskalkia. Hau horrela, bi hauek hizkuntza gutxituaren funtsezko ezaugarri direla kontuan hartuta, irakaskuntza egoki bat bermatzeko, Azkoitia bezalako herri batean

ezinbestekoa iruditzen zait euskara batuaren irakaskuntza bermatzeaz gain, euskalkien gutxienerako irakaskuntza bat ematea.

Euskara batuaren lanketari dagokionez, hau lan formaletan erabili beharreko hizkuntza bat bezala ikusten da, eta euskalkia ikasle kopuru handi batek eta irakasle gutxi batzuek erabiltzen duten zerbait bezala, honen inguruko gutxienerako lanketarik egin gabe. Hemen, Maiak eta Larreak (2008) aipatutakoa funtsezkoa iruditzen zait eta ikastetxean ez da egiten. Hau da, Azkoitiko ikastetxea inguru euskalkidun batean kokatu eta ikasle ia guztiek tokian tokiko euskalkia erabiltzen duten heinean, ikastetxeak bertako hizkera aintzat hartu behar du. Horrek esan nahi du euskalkiaren erabilera planifikatu egin behar dela, euskalkiaren didaktika diseinatu eta aurrera eraman, eta jakina, hori egiteko ezinbestekoa da irakasleak behar bezala prestatzea. Batu-euskalki afera ezin da inprobisazioz kudeatu, irakasle bakoitzak bere irizpideak hartuta eta gutxienerako neurriak adostu gabe. Lanean zehar jasotako datuek, bai irakasleek zein ikasleek, aditzera ematen dute Azkoitiko ikastolan ez dagoela hizkuntza-proiektu zehatza gai honi heltzeko. Eta horren ondorioa izan daiteke ikasleek batua eta euskalkia kontrako zerbait bezala ikustea, biak ikaskuntzaren eta komunikazioaren mesederako sentitu beharrean. Gainera, irakasleek euskara batua erabili beharrean, bakoitzak bere jatorrizko euskalkia erabiltzen duela ikusi da, nahiz eta euskalki horrek zerikusirik izan ez Azkoitikoarekin. Nire kasuan, zuzenean ikusi ahal izan dut batzuetan ikasleek eduki batzuk ez zituztela ulertzen, irakaslearen euskalkiaren ondorioz (nahiz eta horren aurrean irakasleak zenbait hitz moldatu).

Horretaz gain, ikasleek lan idatzi guztiak batuan egiten zituzten, askotan zailtasunak izanik, ez zutelako euskara batuan hitz egiten zuen inor aurrean. Horregatik, uste dut testuingurura egokitutako hizkera landu beharko luketela, honen bidez ikasleek erabilera ezberdinak ikasi ditzaten. Hau da, garrantzitsua da jakitea lagun bati zuzendutako karta bat euskalkian egin daitekeela, hauen eguneroko hizkuntza hori baita, baina zuzendariari aldiz, egokiagoa dela euskara batuan, hau formalagoa baita. Ahozkoarekin ere berdina egin dezakete, egunerokotasunean egiten duten zerbaitez baliatuta euskalkia edo batua landu dezakete. Horrela, egoera ezberdinetan erabiltzeko gaitasuna garatuko dute. Hemen, irakasleak ere ondo jakin beharko du zein, noiz eta nola erabili euskalkia edo batua. Eta elkarrizketatutako irakasleek adierazi dutenaren arabera, pentsa liteke agian hori ez dela beti kasua. Beste behin ere, ikastetxetik bertatik landu eta sistematizatu beharreko gaia dela agerian geratu da.

Honetan guztian irakaslearen lana ezinbestekoa bada ere, ez da erraz gauzatu daitekeen zerbait. Izan ere, oso zaila izan daiteke irakasle batek tokian tokiko euskalkia ezagutzea,

ordezkoa denean eta denbora gutxi baten barruan bi edo hiru eskola igarotzen dituenean. Hemen irakasleak baino lehen, ikastetxeak plan bat garatu beharko du, zehaztuz euskalkia non, noiz eta nola erabili. Baita ere, irakasle bakoitzari zer eskatuko dion eta hau zer emateko gai den, guztiek ez baitute euskararen eta euskalkien inguruko ezagutza bera izango. Ildo horretan, ez dugu ahaztu behar IRALE bezalako egitasmoak eraginkorrak izan daitezkeela irakasleria formatzen.

Bigarren hizkuntza bezala euskara duten ikasleekin, lanketa berezi bat egin behar dela pentsatzen dut. Hauen, euskararen ikaskuntza bai edo bai euskara batutik hasi behar bada ere, funtsezkoa iruditzen zait ikastetxeak baliabideak eskaintzea bi hizkeren arteko ezberdintasunak barnerratzeko. Horretarako, irakasleak H2 euskaradunekin mintzatzean euskara batua ere noiz erabili aztertu behar da, irakasleak izango baitira duten erreferente bakarra. Dena dela, gure emaitzek adierazitakoaren arabera, neurri batean lanketa bera egin beharra dago etxetik euskaldunak direnekin ere, zailtasunak erakutsi dituztelako euskalkitik batura igarotzeko. Aztertzeke geratzen den esparrua da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; gerta liteke etapa horretan nolabait finkatzea batuarekiko ezagutza eta erabilera.

Hemen guztian, esanguratsua iruditzen zait E4_D irakasleak aipatutakoa. Ikasle batzuk euskara ama-hizkuntza bezala izateak eta hau egunerokotasunean erabiltzeak, bertakoagoak sentitzea ekar dezakeela dio. Aldiz, hau H2 bezala duten ikasleek, euskara soilik ikastetxean erabiltzean honen erabilera eremu horretara mugatzea ekar dezakeela uste du. Hau dela eta funtsezkoa iruditzen zait euskarari bere osotasunean ikuspuntu eta erabilera global bat ematea ikastetxearen partetik eta hau esparru ezberdinetan erabiltzeko bitartekoak eskaintzea.

Esandakoaz gain, eta herri mailan, beste aukera bat izan daiteke astean edo hilean behin tokiko hizkera ezagutzeko jarduerak egitea ume eta gazteekin. Honen bitartez, euskalkia erabiltzeko nahia elikatu daiteke ikasleengan eta interesa eta motibazioa izango dute beraien hizkuntza ezagutzeko, urteetan euskalkiak galdu duen indarra berreskuratuz, eta berezitasun zehatzei indarra emanez (lexikoa, hitanoa, etab.).

Bukatzeko, aipatu beharra dut euskalkiaren lanketa ez dela posible herri eta ikastetxe guztietan, euskara hizkuntza gutxitua den heinean, hizkuntzaren irakaskuntza bera ere kasu askotan erronka beteaz dagoelako, batura mugatuta ere. Beraz, Maiak eta Larreak (2008) dioten bezala, testuinguru soziolinguistikoaren azterketa zehatza egin behar da ezer baino lehen, ondoren hizkuntza gutxitua nola irakatsi erabakitzeko. Lan honetan egiten diren proposamenak eta iruzkinak Azkoititik Azkoitira eginak dira. Posible delako euskara

batuaren eta euskalkien inguruko irakaskuntza uztartzea, non helburu nagusia euskara bera aberastea den. Horretarako, ezinbestekoa izango da ikastetxeak berak zorrozki zehaztea zein toki eman nahi dien euskara batuari eta euskalkiei irakasle eta ikasleen artean, eta baita materialei dagokionez.

8. Erreferentziak

- Eusko Jaurlaritza (2022). Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum. Heziberri 2020. 236/2015eko Dekretuaren II. Eranskina osatzen duen curriculum orientatzailea. Hemendik berreskuratua data honetan 2022-01-16:
https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/inn_heziberri_dec_curriculares/eu_def/adjuntos/OH_curriculumosoa.pdf
- Amorrortu, E. & Ortega, A. (2009). Zergatik eskolaratzen dituzte gurasoek seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan?. *Euskera*, 54, 2-1. 579-602
- Azkoitiko Ikastola-Xabier Munibe HLHI (d.g.).
<https://azkoitikoikastolahlhi.hezkuntza.net/eu/inicio1>
- Goikoetxea, J. L. (2003). *Euskalkia eta Hezkuntza. Dakigunetik ez dakigunera Euskal Diglosia Irazian* (Tesi doktora, unibertsitatea?). Euskaltzaindia..
- García Azkoaga, I. M., Imaz Gaztelurrutia, A., Diaz de Gereñu Lasaga, L., & Alegria Susperregi, A. (2011). Ahozkotasanaren irakaskuntza bigarren hezkuntzako testuliburuetan. *Tantak. EHUko Hezkuntza Aldizkaria.*, 22(1), 7-42.
- Idiazabal, I. & Manterola, I. (2009). Euskal eredu elebidunak, murgilketa eta hizkuntzen irakaskuntza bateratua: kontzeptuen berrikusketa. *Euskera* 54, 463-504.
- Maia, J., & Larrea, K. (2008). *Euskara batua eta euskalkiak haur eta lehen hezkuntzan*. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua. Hemendik berreskuratua data honetan: 2022-09-14,
https://ikasmaterialak.ehu.eus/hezkuntza/euskara-batua-eta-euskalkiak-eskolan/batua_euskalkiak_eskolan.pdf
- Manterola, I., Berasategi, N. (2011). *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Olasagarre, Y. & Mugertza, E. (2015). Euskara bultzatzeko esperientziak Nafarroako Irakaskuntzan: motibazioa eta ahozkoa. *BAT soziolinguistika aldizkaria*. 96, 69-101.

Perez, K. eta Garro, E. (2018). Ikastetxeko hizkuntza-proiektua, hautuak egiteko eta ikastetxea eraldatzeko aukera. *Jakingarriak*, 77, 56-59.

Soziolinguistika Klusterra. (2022). *Hizkuntzaren erabileraren kale neurketa. Udalerrak, 2021 (Azkoitia)*. Hemendik berreskuratua data honetan: 2023-03-16, <https://soziolinguistika.eus/eu/proiektua/hizkuntzen-erabileraren-kale-neurketa-udalerrak-2021/>

Zuazo, K. (1999). *Euskararen osasuna eta euskalkiak*. Euskaltzaindia.

9. Eranskinak

1. Eranskina: LH 5. mailako A gelako tutorearen behaketa egiteko orria, item bakoitzari dagozkion erantzunekin.

Irakasleen arteko komunikazioa				
Gela barruan ikasleekin	Inoiz ez dut ikusi	Noizbait ikusi dut	Sarritan ikusi dut	Beti
Ikasleen berdina ez den euskalki batean hitz egiten du				x
Tokiko euskalkiaren erabilera sustatzen saiatzen da	x			
Euskalkia eremu formaletan erabiltzen saiatzen dira.				x
Ikasleekin duen hartu-emana euskara batuan da	x			
Tokiko euskalkiaren inguruko gutxieneko jakintza bat du		x		
Euskal Herriko dialekto ezberdinen inguruko gutxieneko ezagutza bat zabaltzen saiatzen da.		x		
Ikasgelan euskalkien erabilera sustatzen du				x
Tokiko euskalkia ezagutzeko baliabideak eskaintzen ditu	x			
Euskara batuaren erabilera sustatu nahi du eremu eta lan formaletan.			x	
Euskara guztiz menperatzen ez duten ikasleekin, horiek euskalkia ulertzeko zailtasunak izanez gero, euskara batuan hitz egiten du.			x	
Etixerako mezuak euskara batuan eta gaztelaniaz izaten dira.			x	
Edukiak euskara batuan azaltzen ditu.		x		
Euskalkia lantzeko materialak prestatzen ditu.	x			
Ikastetxeko lehen hizkuntza bezala euskara batua erabiltzen dute, hau da espazio ia guztietan lehen hitza euskara batuan egiten da	x			

Gainerako irakasleekin gune formal eta ez-formaletan	Inoiz ez dut ikusi	Noizbait ikusi dut	Sarritan ikusi dut	Beti
Eremu ez-formaletan (pasilloa, irakasle gela, etab) euskalkiaren erabilera nagusitzen da.				x
Bilerak euskara batuan izaten dira.	x			
Bileretan norberak bere euskalkia erabiltzen du.				x
Gainerako irakasleek bere euskalkia ulertzeko zailtasunak dituztela ikustean euskara batura pasatzen da		x		
Euskara batuan hitz egiten du	x			
Ikastetxeko lehen hizkuntza bezala euskara batua erabiltzen du, hau da espazio ia guztietan lehen hitza euskara batuan egiten da, nahiz eta gune ez-formal batean egon	x			
Prestakuntza jaso du herrian tokiko hizkera ezagutzeko.	x			
Gainerako irakasleekin hizpide izan ohi du batu/euskalki gaia.		x		
Gelatik kanpo ikasleekin	Inoiz ez dut ikusi	Noizbait ikusi dut	Sarritan ikusi dut	Beti
Ikasleek ezagutzen ez duten euskalki batean hitz egiten du				x
Batuan hitz egiten du.	x			
Euskalkien erabilera sustatzen saiatzen da		x		
Euskara batuaren erabilera sustatzen saiatzen da	x			
Ikasleekin hizpide du batu/euskalki gaia.		x		

2. Eranskina: LHko 4 irakasleri egindako elkarrizketen transkribapenak, irakasle bakoitzari dagozkion kodeekin.

2.1 erankina: E1 irakasleari egindako elkarrizketa

1. Nongoa zara? Zein da zure ama-hizkuntza? Euskalkia erabiltzen al duzu?

Mutrikuarra, euskaria, ee egunerokotasunean euskaria erabiltzen det bai etxian ta bai lagunakin baina bueno, amakin ere erderazko joeria ere badakau. Bai.

2. Nolako presentzia du euskalkiak zure herrian?

Eee nik uste det haundixa, e batez ere igual pertsona nagusixetan euskalkixa oinarritzen da o predominatzen deu, eee gaztietan euskera batua bai ze eskolan entzutzezu, baina nik usten det hezkuntza munduan ez baldin bazabiz, euskera batua kostau itxen dala, baina hori normalian hori, harremanak euskalkixan herri barruan.

3. Zenbat denbora daramazu ikastetxe honetan? Batu eta euskalkiaren erabilerari dagokionez, aldaketarik ikusi al duzu azken urteotan? Zein da zure erreakzioa horren aurrean?

Hau laugarren urtia, Azkoitxin. Eee ez egixa da ikasliak azkoitxiarrez etxen deuela denbora osuan eta gero igual aurkezpen bat baldin bado ba galdetu etxeue, hau euskara batuan? e bixkat kostatzen zakoe e baina euskara batuan txipa aldatzia baina bueno nahiko ondo eta batez ere euskalkixan komunikatzeia. Ondo, nik ustet e indartu in behar diala euskalkixak, egixa da euskara batuak euskaldun danak batzen diguna dala eta garai batian ba lanketa bat in zala ba euskara batua lortzeko, baina bueno euskalkixak kalte eztiio eitxen, ez.

4. Ikasleekin izaten dituzun hartu-emanetan euskara batua edo euskalkia erabiltzen duzu? Zergatik? Gela barruan edo kanpoan egon zure hizkera aldatu egiten da? Agian gune formal batetik ez-formal batean egotera pasatzean?

Eee normalian euskalkixa, egixa da batzutan segun e azalpen bat eman bihar bada hola pixkat e zailtxasunak dakana ba hor ia euskara batua, euskara batura jotzen detela, ba azkenian ba igual hitz teknikuak eta azalpenak garbixio izateia euskara batuan eta gero bestela harremanetarako euskalkixa, egixa da ba batzutan mutrikuar mutrikuar ez detela eitxen euskalkixa hitz batzuk eta zainddu etxen ditxut, aldatu, hori da, ulertzeko. Nik e hori, euskara batua esan dizutena e azalpenak eta emateko ba argixo dia ta ba azkenian dira normalian, matematikako kontzeptuak iual barnerau bihar deuenak eta euskalkixa gero bestela normalian nik ustet neri naturaltasuna ematen ditxen puntua dala eta azkenian harreman bat eukitzeko orduan baa komodo sentitxu bihar zea eurokin. Orduan ba, egixa da euskara batuan ahalko nintzala komunikau baina artifizial puntua iruditxuko zaten emango niola.

ee ba nik hor hori hizkuntza formaltasunakin ez?, gela eremuan ba ez ikasi ein bihar da, gauzak ein bihar dia, lanak ein bihar dia, gero patixuan ba azkenian ez? hurbiltasun bat do

eta orduan hori ba iual barrera hori apurtu etxen dezu. Eta nik ustet ba batzutan biharrezkua dala e ikasliak zurekiko konfiantza bat izateko o zeu ere ez? ba batzutan iual arazuak egoten badia hurbilo bazea ba errazo kontaktzen dizulela. Hori da, bai aldau, oo patixotan o irteereta juten zeanian, egixa da gela barruan dala gune formal bat ba esan detena ba azalpenak eta pixkat ikasteko momentua dala ba hor ez? ba distantzia bat mantentzen duzula baina klase barruan ere egotean dia une batzuk ba jolastekuak, o libre hizketan eitzeke, orduan ba hor ere aldau eitzezu erregistroa.

5. Euskalkiak ikastetxean duen presentziaren inguruan zer iritzi duzu? Eta ikasgelan? Behar besteko garrantzia ematen zaio tokiko hizkerari ikastetxean egiten diren ekintzetan?

Eee nik ustet haundixa dala, egixa da ba eskolia handi-handixa dala, baina ehuneko haundi bat ere justo herrikuak dia o ondoko herrikuak eta horrek euskalkiخان eitxen deue, norberak ere bai, ez baldin bada ba iual Bizkai aldekoa, baina bueno, nahi det esan Bizkai aldekoa baina arutzo Bilbo aldekoa eta hola euskalkixa entzutzen dala eta bueno aberasgarria dala. Bai bai, ee azkoitxiarrez eitxen deue lehen esan deten bezela, osea, bai lelengoko hitza hori ateatzen zakoe eta normala da azkenian.

Ez, egixa da eee dala herri euskaldun bat orduan ezto biharrik, nahiz eta patixuan ikusteia ba iual ee ikasle jakin batzuk ba erderia jotzen deuela eta bai daola e preokupazio punto bat batez ere udal mailan, baina momentuz eztou ein ezer.

6. Ikastetxeak erabaki zehatzik hartu al du euskalkiaren erabileraren inguruan? Hala bada, zein? Bat al zatoz horrekin? Zergatik?

Ez, ee libre libre, nik ustet gainea ere osa nahiko helduak geala jakitzeko momentu bakoitzian zela jakin, azkenian gero ere bai esan deten bezela azalpenak ematiaz gain, idatzi ein behar deue eta idatzii ikasi behar deue ee esaten dan bezela ez dala idazten eta hori da aldaketia batez ere hasierako mailetan ba kostau eitxen da orain e bai e, seigarren mailan ere bai baina bueno, nahiko kontziente dia.

7. Ikasleen euskalkia ezagutzen ez duten irakasleak badaudela kontuan hartuta, honen inguruko jakintzaren bat izan beharko luketela uste duzu? Prest egongo al zinateke horrelako formakuntzaren batean (nola indartu tokiko euskalkia ikasleekin) parte-hartzeko?

Osea Azkoitziarra jakin in behar deula?, Honbre bai, gero egixa da ein etxexeala, errez etxezeala ni etorri nintzanian ba ba kostau in zaten batez ere eee hiztegixan aldetikan ze oso diferentia da baina bueno ein etxen zea ee interesa zeure partetikin ipintzezu, ba galdetzen zer da hau? justo atzo diskusiño bat euki gendun, bueno diskusiua o, komentau in giñun nik adibidez galtzak ee “galtzak” esatet osa “pantalones” eta eurak “prakak” orduan ba bueno baa horrelako debatiak o sortzen dia eta ba interesau eitxen zea, zeure goguan arabera jakin-mina badakazu ein etxezu. Hori da eta ba momentu politxa izaten da.

A bai, azkenian ee lau urte nua hemen eta ez du inporta lau urte edo urtebete eon eskola honetan ikasleekin gertuo sentitzeko ulertzeko eta hori ba oinarri bat da, azkenian gizakixak gea gure erramienta bat hizkeria da komunikatzeko, orduan biharrezkua bai eta ondo ikusiko noan.

8. Gainerako irakasleekin komunikatzeko batua edo euskalkia erabiltzen duzu? Zergatik? Irakasleen arteko bileretan zer erabiltzen da euskara edo euskara batua? Adostua al duzue erabakiren bat?

Euskalkixa, ee lehen esan detena komodo, gainera normalien irakasliakin eoten zeanian eremu ez-formalean izaten da ba patixuko orduan, atsedenalditan orduan ba bai. Eee ebaluazio bileretan juntatzen geanian irakasliok bakoitzak beria erabiltzen deu gero gurasoekin bileretan be asegun gurasoak, ez badeue dominatzen ba euskara batura jotzen duzu, baina hori kasuan arabera, eskola barruko bileretan norberak bere euskalkixa baina gero gurasoei beira ba iual segun zeinekin zaindu eitxezu hori. Bai, bai azkenien inportantiena da enteratzia zer zozen kontatzen. Ez ez, bai bai bai. Hombre ustet eskolia euskalduna dala, eremu ez euskaldunetan ba iual adostu ein biharko da, suposatset.

9. Etxetik euskaldunak ez direnen ikasleen kasuan, uste duzu behar bereziren bat zehatzen bat dagoela euskalkiarekiko? Eta batuarekiko?

Eee, nik ustet etxetikan hizkuntzia orokorrian euskeria ez bada lantzen, ee zailtasunak doz, osa bai euskalkixa o bai euskara batua eitxeko, gero ikasle diferentiak doz, batzuk dia ba iual, etxetikan ateatzen ez dianak eta orduan ba horrek zailtxasunak dakarre ze eskolako ordutan bakarrik eoteia eta beste batzuk dia ba egunerokotasunian ba kalea ateatzeiala orduan ba horrek quieras o no baa hori eitxen deue eragin bat daka eta lortu eitxen deue euskeria menperatzia, de hecho dakat kasu diferentiak ba batek euskaraz ondo eitxen doala euskalkixan batez ere da bere gurasuak pakistandarrak izanda eta beste batzuk eta bi marroqui bai badakixe baina bueno, ez, tendentzia gaztelaniara edo arabiera. Bale, nik ikasle adibidez, ikasle ee hiru perfil esan dizut, batek oso ondo, bestiak menperatzeu, da baina beste batek euskeria ezta eta ba horrei adibidez euskera batuakin ba indartzen euskeria normalian ba ikasle horrek hizkuntziakin bixkat retxazua dakarre, nahiz ta izan euskara batu ta euskalkixa ba orokorrian hizkuntzia, bai.

10. Ikasleen artean, euskara H1 edo H2 gisa eduki, ezberdintasunik ikusten al duzu euskalki edota batuarekiko?

Eee, euskaraz itxen deuenak gurasu bixak dakaenak lehen hizkuntza euskara euskalkira jotzen deue, azkenian e gurasok be gexenak hamen ingurukoak dira orduan, umiekin ere euskara batuan in biharrenian euskalkixan eitxen deue orduan hori hori ikusten da gela barruan eta gero baa, eztakaenak euskeria lehen hizkuntza bezela de todos batzuk iual dakate ama euskeraz ta aita erderaz baina euskalkixa perfektamente kontrolatzen deue eta dakarrenak ba hori bi gurasuak erdaldunak o bi gurasuak ba beste hizkuntza bat

kontrolatzen deuenak ba hortan ba bai ikustezu batez ere e idatzizko ekoizpenetan, bi erdaldunak dianetan idatzizko ekoizpenetan asko igartzen da ba erderakadak ba ortxe bai e eta ba beste hizkuntza bat dakarrenak arabiarra kasu horrek ba kosta kosta eta zu egon bihar zea esaten.

11. Euskalki eta batuaren arteko harremana dela eta, beste ezer erantsi nahiko zenuke?

Eeee ez nik ustet hori euskalkiak zaindu in behar dia ez galtzeko euskara batua ere bai, klarisimo, eta euskara batua ere entzun in behar deuela osa justo nere batez ere eskola honetan ero gelan ere bai euskalkixa da entzuten dan bakarra baina biztuten bozu telebista o edoze artikulua irakurritxa euskara batua do orduan hori ulertzen jakin in biou eta irakasliok gea ez? erakutsi bihar dixounak, orduan inportantzia ikustet bi hizkuntzak lantzia.

2.2. Eranskina: E2 irakasleari egindako elakrrizketa

1. Nongoa zara? Zein da zure ama-hizkuntza? Euskalkia erabiltzen al duzu?

Bueno Marta na, aupa, ondarrutarra. Euskeri, bai.

2. Nolako presentzia du euskalkiak zure herrian?

Eee, nik esautzen doten guztik ondarrutar etxen dabe berba osa iñor eztot esautzen ondarrun ondarrutarra ixanik ee batun etxen dabenik eta erderaz berba etxen dabenik be nire bueltan bentzat ez da.

3. Zenbat denbora daramazu ikastetxe honetan? Batu eta euskalkiaren erabilerari dagokionez, aldaketarik ikusi al duzu azken urteotan? Zein da zure erreakzioa horren aurrean?

Zazpigarren urti, zazpigarren ikasturti. ee gela barrun? Osa ikastetxin bertan e bai ikaslik eta bai irakaslik bertakuk dizenak euran euskalkixe etxen dabe, jakindde Azkotxin gazela ba euran euskalkixe erabiltxen dabe. Eee bai egixe esan, gela barrun eskatzezkule batun etxi bai? eee ordun e bai saiatzen za ariketa oso oso gatxak dizenin e hori etxeko bai saiatzen za ez batun etxen bañe bai euskalkixe e bixkat apaintzen eurak e ulertzeko morun ezta? bañe bai nik ondarrutarra presente dakat gelan be bai, bai eta gainea, guraso askok eskertu eitxen dabe ondarrutarra entzuti euran e ikaslik osea, euran seme-alabak.

4. Ikasleekin izaten dituzun hartu-emanetan euskara batua edo euskalkia erabiltzen duzu? Zergatik? Gela barruan edo kanpoan egon zure hizkera aldatu egiten da? Agian gune formal batetik ez-formal batean egotera pasatzean?

Bai, bueno komentaroten morun ezta zeoze gatxe bada bai, ero be bai aurten ez gazta pasaten bañe bai iual beste geletan euki dotenin atzerritarren bat edo bai ee erdera jo baino ariñaua bai eitxen netzan batun, bai batun porque ondarru ain itxixe ixanda ondarrutarra ee bai gelditzen di bixkat hau zer dabil ezta? bañe bai batoa erdera jo baino ariñaua askotan erdera jo bihir ixatezu gero baino lehenengo bature etxezu bai. Ez, ez nik pentsaten dot ee

bueno nik ulertzen dot be bai e ikastoletan edo eskoletan batun ein bihir dana ee hori ulertzen dot porque dana dakau egixe esan batun euskalkixetan idatxitxe ezta, baine nik bai pentsaten dot aberasgarrixe dala iual e euskalki diferentik ezagutzi eta ia que eurai emoten dotzauen aukeri e ikasliai eurai egunorokotasunin e azkoitxiar etxi nahitxe lan konkreto batzutan ahozku eta etxen dabenin beti be batun eskatu, ee aukera bardine euki biko gendukela ee geuk irakasliok be bai ezta geure euskalkixe erabiltxi.

Bai, aber euskalkixe ezta aldatzen baine bai aldatzen da seriotasune edo goxotasune e zu gela baten barrun za e era batea jokatu bizu baine eurak umik be kanpun dazenin diferente jokatzen dabe ez? gauza asko ikusten di gainea kanpun gazela barrun eztozunak ee ikusten eta geu be bai bixkat kanpun gazenin pues katxondeu gexaua ebiltxen dou edo beste enfasis bateaz berba eitxen dozu ero gela barrun sartzen eztozuzen berba batzuk be iual sartzen dozu o ee bai ez neuke esango aldatu aldatu baine bai bixkat diferentetxuaua seriotasunetik junde mas serio edo bestelanik hori, bai, baine hori umik be diferentik dizelako be bai kanpun e ose zu gainea gelan zezenin lan batzuk ein bihir zuz eee eskatzen dotzuelako alantxeik etxi eta nahitxe talde lanin edo egon, ba ein enbir zuz lanak ta ordun kanpun gazela pues betire jolasteko edo beste ariketa ludikuaauak ero etxeko ta ordun bai aldatzen da. Bai bai bai, ta nik pentsaten dot aldatu ein bir gazela be bai e ta gure hizkuntzi aldatu ein bihir dela eta gure gorputzan jarrerri be aldatu ein bihir dela osea ez ga bardinak barrun eta kanpun eta ezin ga bardiñak ixan barrun eta kanpun bardiñak ixan jakin ein bihir dabe eurak nun dazen barrun zetako dazen barrun eta kanpoa juten gazenin zetako gazen kanpun.

5. Euskalkiak ikastetxean duen presentziaren inguruan zer iritzi duzu? Eta ikasgelan? Behar besteko garrantzia ematen zaio tokiko hizkerari ikastetxean egiten diren ekintzetan?

Azkoitxiarrak? generala dala, eske hamen ikastolan pasaten dana da ehuneko larogetamarra azkoitiarra dala bertako irakaslik di, eskola publikau publikatako eskola bat da gainea asko laboralak bertan gelditxu zin eta asko bertakuk di, ordun hamen azkoitiarra entzuten da eta ez bakarrik azkoitiarra sino que hika etxen daben bai neskai eta bai mutilai ordun hamen generalizau de azkoitiarra bai eztozu entzuten inor batun berbetan ero ez, hamen gainea bakotxak beran euskalkixe erabiltxen dau e bañe generala ehuneko larogetamarra azkoitiarra bai. Bai bai, bai presente da eta euskal kulturi presente da eta azkoitxiko histoixi presente da, eta goazen etxea ezta zelaku porque Azkoitxiarrakin lotute da eta ontxe pasa gazku guri gaztelanian eta zuk badakixu gaztelaniako testu hamen dakau gañea ba aurrin “El Azcoitiarra que traía la plata y el oro” osea ee itsosun Azkoitiarra ba horrei be agarra ein bihir, o ikastolako egune dala ta jaialdixak da bai da lotute e bai inportantzixi emoten dotze.

**6. Ikastetxeak erabaki zehatzik hartu al du euskalkiaren erabileraren inguruan?
Hala bada, zein? Bat al zatoz horrekin? Zergatik?**

Ez, bai etorri gazkun ondala gitxi normalkuntzatik eee hika, baina nik esan netzen aber ondarrun ezta hikaik ondarrun dana zuka da, ordun bai eskatuzten bueno ez eskatu sino que inportiotzu nik zuri hika etxen batzut zuk natxe zuka ein, eta esan netzan ez eztozta arduraik adibidez Eli gure horrek esastan “ba nik hika eingo eñat” ein nahizune esan netzan ein nahizune baine nik zuri zuka engotzut porque ze nik hika ezta. Ordun nik oixe bai botaten dotela faltan ondarrun ezta? Bai porque Markiñan be eitxen da eta eztaipe hori bai botaten dot bixkat faltan. Bai, nik pentsaten dot bakoitxak berana ein bihir dabela, bakotxak berana, eta erderi bultzatu baino ariñaua nik pentsaten dot euskeriai dale ein bihir dotzau ela, hori super argi dakat eta nik pentsaten dot ni gu ondarrun eongo bagiñan ondarrutarra eee hori engo bagenduke goraiapatuko genduken morun hamen normala dala azkoitxiarra e hori etxi eurak be guk eurana onartzen dou eurak gerui onartzen daben morun eta guk hamen gainea osea irakaslin artin be nik danai eitxen dotzet ondarrutar ni ez na juten bateana eta “ee barkatu ee ulertzen didazu?” ez. Osea nik ondarrutar eitxen dotzet saiatzen na igual bai ee segun ze euskera nibel dakarren ba bai lentotxuaua etxi edo baine ondarrutarra.

7. Ikasleen euskalkia ezagutzen ez duten irakasleak badaudela kontuan hartuta, honen inguruko jakintzaren bat izan beharko luketela uste duzu? Prest egongo al zinateke horrelako formakuntzaren batean (nola indartu tokiko euskalkia ikasleekin) parte-hartzeko?

Hombre hori bakotxan beran pertsonin baitan be egon leike ez? osea ze nesidade eta ze gogo dakazun integrateko bertan eee hor. Ni adibidez, lehen esan doten modun, osea e kriston inportanti eta aberatsgarrixe eretxitxen gazta beste euskalkiak jakitxi, ez berba eitxi, baine jakitxi eta ulertzi eta ba nik azkoitxiarra eztoz ikasi baine bai familiariza naz e beraz ba urtik aurrea jun ahala eta nik pentsatzen dot hori super inportanti dala eta onartzi de bai. Azkoitxiarra ezagutzeko? zazpi urte ta gero nik pentsaten dot ia nahiko barneratute dakatela, ee bueno formakuntzak beti etorten di ondo, osea nik esaten dot formakuntza batek erakutsi bihir batzu buruz behera nu, bai, fundamentozu ixango balitxake formakuntzi jungo nitxake. e laga ein bihir dotzau, bai bai bai.

8. Gainerako irakasleekin komunikatzeko batua edo euskalkia erabiltzen duzu? Zergatik? Irakasleen arteko bileretan zer erabiltzen da euskara edo euskara batua? Adostua al duzue erabakiren bat?

Bai lehen esan doten modun, ondarrutarra. Neuri dalako, neurire eta nik pentsaten dot geuk be ee lehen esan doten modun geuk eurana entzuten douen modun o Azpeitiarra asko be bai o Zestoarra entzuten douen modun geuri be zabaldu ein bihir douela ez?. Ez ez, bakoitxak bere euskalkixe erabiltzen dau. Ez, guk eitxen dou geure artin normal osea

kanpun eongo bagiñake modun bañe gero ia idazten dozun guzti batun idaztezu, hori bai eskatzen dozku dana batun idazti bai, dokumentuk eta ezin geinke bakotxak beran euskalkixan idatzi.

9. Etxetik euskaldunak ez direnen ikasleen kasuan, uste duzu behar bereziren bat zehatzen bat dagoela euskalkiarekiko? Eta batuarekiko?

Eee gatzik dizen heinin, nik pentsaten dot ee errezaua sartzan dizela, on egixe esan, geroo etxin eta ez dabe etxen normala dan modun, baine errez ikasten dabe, errez, eztozu, aber entzuten di erderaz gexaua baine ondo barneratute modun dakarre hori euskalkixe bertakuk bentzat. Ez, nik ikusten dotena da, euskera euskalixaz berba erabiltzen dabenez depora guztin, gero idazteakun batu ezin dabela erabili euskalkixe erabiltzen dabela hortxe bai barakarrela desfasi bixkat, euran euskalkitxik bature pasati, hortxe dakau kriston lana eitxeko, hortxe dakau lana etxeko, batzuk bai errez hartzen dabe bañe batzukin bai ee bai, bai gexa kostaten gakoe estrukturak eta aditzak batez be, asko sartzan dabe aditzak idazteakun azkoitxiarra ta ba bueno hortxe da geure lana bez ez? dana bestelaik errez erreza ixango litxake.

10. Ikasleen artean, euskara H1 edo H2 gisa eduki, ezberdintasunik ikusten al duzu euskalki edota batuarekiko?

Nik ee desberdintasunik eztoxtuaz ikusten euskalki eta batuarekiko, ikusten dotena da ee ama hizkuntzi ezta karrenak euskeri erdera etxen dabela, erderi de eurak ibiltzen daben komunikateko hizkuntzi ez dabe etxen bature, ez dabe etxen, gaztelania etxen dabe. Atzo pasa gaztan niri eskiaretatik berutz beatu neban eta esan netzen "txo ezta kixue euskeraz ala? bai" ba ordun zetan zabize erderaz berbetan eta bixak zin kasualidadi kanpotarrak.

11. Euskalki eta batuaren arteko harremana dela eta, beste ezer erantsi nahiko zenuke?

Hombre ee nik pentsaten dot ba ee idatzi eta ondo dala eta guk ee batun eta irakurri irakurti ondo dala ta geure hizkuntzi de eta ba euskera batu beti ixango da ez? formalaua ta eskatzen dana ta, kartak idazteko ibiltzen douena ta halako gauzak etxeko, baine nitxako super inportanti de eta horretxeatxik existiuten di herri bakotxeko hizkuntzi ero euskalkixe ee bultza ein bihir dela eta mantenu ein bihir dela, eske geuk ez badou etxen edo danok batun hasiko bagiñake galdu engo litxake dana eta hori be ezta komeni, hori ia neure ikuspuntu ixan leike, abertsali, baine egixe da eske ezta, hasi zu ondarrun batun, eske ezin leike, ez litxake normaliza be engo. Guk euki bihir douena da kapazidadi ee pentsa ondarrutar eta hori trasferentsixi papelea batun etxeko, nik pentsaten dot oixe nahiku ixango litxakela eta nik oixe eskatsetzet ikasliai, laga etxetzuet azkotxiar etxen limitata segun ze ariketa lehen esan doten morun baine nik gero irakutsi bitzet hori azkoitxiarra burun batu bihurtzen eta bertan idazketan batun etxen, baine ibili norberak norberana, egunerokotasunin.

2.3. Eranskina: E3 irakasleari egindako elkarrizketa

1. Nongoa zara? Zein da zure ama-hizkuntza? Euskalkia erabiltzen al duzu?

Ni Azkoitiarra, ee Euskeri da gaztelania, ama euskaldune atxe castellanue. Bai, euskeraz etxet danin nere atxekin izen ezik.

2. Nolako presentzia du euskalkiak zure herrian?

Eee ehuneko ehune ixte ba euskaldun berrixek iuel euskara batun zeoze eta gero ba erdaldunena ba erderaz etxen iñau baina bestela dana azkoitxiarrak geanok ee normalez azkoitxiarren iten deu.

3. Zenbat denbora daramazu ikastetxe honetan? Batu eta euskalkiaren erabilerari dagokionez, aldaketarik ikusi al duzu azken urteotan? Zein da zure erreakzioa horren aurrean?

Ikastetxe honetan ia hamaika urte hamabi. Erabilerai buruz edota euskara batuai pentsatzen deunai buruz? bai, ba nik ikusten detena da ba euskera batueee asmau zan garaixen ba bean gauza onura oso handixe ixan zala ba bateratu in zalako eta literaturako launtza lagungarrixte izentzalako baina gero ikusi detena da leku askotan ee penaz ba euskalkixte galtzen jun dala eta leku askotan ba euskeri berreskurau den bezela ai dia euskalkixte galduta zaola da euskara batua ba beran bidie ta bere gauza onak euki dittun bezela ba euskalkixte oindiken e daon lekutan ba zeatu in behar dala ta azkoitxin ba bertaku irakasli izenda neu eeta bertaku izenda ba iruditzen zat baa euskalki hortan emon behar ditutela eta ikaslik erreferente bezela euki behar nabela, ze danak eztauke euskalki hori etxin.

4. Ikasleekin izaten dituzun hartu-emanetan euskara batua edo euskalkia erabiltzen duzu? Zergatik? Gela barruan edo kanpoan egon zure hizkera aldatu egiten da? Agian gune formal batetik ez-formal batean egotera pasatzean?

Normalin beti euskalkixte ibiltzet, normalin, badaude salbuespen batzuk ba iual ba kanpotik etorri dan pertsona bat bai oindikan euskaraz ikasten ari dana eta testu ulermenak eta in behar dittunin eta holakotako berai komeni zako euskara batuen ikestie, eta ordun bai euskara batun itten dixotela pertsona horri, baino bestela azkoitiarrez. Ba leno esan dizuten arrazoi berdinatik, iruditzen zatelako geurie saittu in behar deuela inor eztala etorriko geurie saitzea eta hor barrueeen sartzen da ba hitanue on momentuen Azkoitin ee ba mutilen artean oso ohiku da ta ari da aurea itten baina nesken artien bai galtzen ai dela eta geo gainea neskak aitzen dozunin esaten "ba eez eztou nahi guk hika ein geure artien, eztzaku gustatzen" ba bixket peni ematen deula eta hori landu in behar deula gelatik hasitxe eta bai saiatzen geala gelan ume danei hika eitten, hitanoz.

Ez, ez.

5. Euskalkiak ikastetxean duen presentziaren inguruan zer iritzi duzu? Eta ikasgelan? Behar besteko garrantzia ematen zaio tokiko hizkerari ikastetxean egiten diren ekintzetan?

Mmmm bueno ee aber hemen suerti zakuna ba azkoitiar asko gaudela baino peni emateu beti ba azkoitiar batzuk ezteuela azkoitiar eitten edo azpeitiarrak bertan eonda oso gutxi aldatutzeala euskalkixe eztebela azpeitiar hitzeitzen ni naon euskalkixen gordetzen haiek be, bestik beste politika hartzen dabe ikastolik bean politika ze zakue denak euskara batun in behar deula ni ondikan ez enio hitzeitten eoteko tokien batean baino etorrileike sikuun eta etortzean bezela ba nik trata in beharko iñat o euskalkixe bultzatzeko beste bide batzuk hartu o talde bat sortu ta esan hamen euskalkixan lan in behar da ez bakarrik jolasordun o euskulanetan baizik eta ez?

Etziok horrenbeste ematen gexo eman biharko zakon berez.

6. Ikastetxeak erabaki zehatzik hartu al du euskalkiaren erabileraren inguruan? Hala bada, zein? Bat al zatoz horrekin? Zergatik?

Berez euskal eskola publikun zeon jarritte dana euskara batuan in behar dala eta ikastetxe honek ere hori zauke bean basetan hartute baino bueno leno formakuntza eindatela pertsona bat giro euskalduneku baldin bada ba azkoitiarrez ikestie eta ze hitz ikesten hitz berrixek eta niri iruditzen zait ba aberatsgarrixe dala berri bat etortzen deanian kanputikan ba harei erakutsi behar sako ba euskara formala ba euskara formaletikan ba abiatu gero euskalkixe ikasi dezan denboriak, baino testuk eta ulertu ditzan testu gexenak euskara batun daudenez ba hola irakutsi bihar zako.

7. Ikasleen euskalkia ezagutzen ez duten irakasleak badaudela kontuan hartuta, honen inguruko jakintzaren bat izan beharko luketela uste duzu? Prest egongo al zinateke horrelako formakuntzaren batean (nola indartu tokiko euskalkia ikasleekin) parte-hartzeko?

Mmmm, eske euskal eskola publiku daon bezela diseñaute oso zaile da hori etxie ze ordezkuk eon leikin eun baten hemen, hurrena mutrikun, hurrena ondarrun, hurrena juleike eee oiartzunera eta dena jakitieee, oso oso zaila da, ordun iruditzen ziten ba bueno baa, bertaku beintzet errespetau in behar dala, minimo errespetau, eta gero baaa garbi nik bixket hitanukin da bixket moskeaute nitxon ze irakasle batzuk bai geatzeie eta esateue eske “nik hitanoz eztakit” ba hire problemie ikasi, nik eztiñat esango azkoitxiarrez etxeko hikaz baino hi ba euskera batuko hika ikaxi beharko deu o ikaxi beharko dek daa bai bixket horrekin moskeaute nitxon ze hitanue galtzie nahiko gabrie iruditzen zaiten dala eta inor ezta konturatzen horrekin, bai bazion ba zea bat, olatu bat horren atzetik dabilena azkoitin bertan e bai baino ala ere ez gara kontziente.

Euskalkixe suertez ezautzen ñat, baino ikastetxien bertan eonda ba hori bultzatzie nahi baldin badeu ba hartu in beharko iñen, eztao besteik.

8. Gainerako irakasleekin komunikatzeko batua edo euskalkia erabiltzen duzu? Zergatik? Irakasleen arteko bileretan zer erabiltzen da euskara edo euskara batua? Adostua al duzue erabakiren bat?

Euskalkixe, beti. Nere ama-hizkuntzi dalako da nire etxin, bueno nire ama ez da azkoitiarra azpeitiarra egia izatez urruzilkue eta bean euskalkixe due baina nik hemen kalin ikesitako euskerie ibiltzen iñet.

Eeee euskalkixe, bileretan? ez, bileretan ba gasteizko bat etortzen baldin bada eta euskara batu erabiltzen badeu harek euskara batun hitz eingo deu, baina nik azkoitiarrez eingo iñat, nik uzte det berantzako aberatsgarrixe dala ez? ni ondarrure jungo banintz bezela neri eztiñat esango euskara batun ein ez, ba belarrixen in beharko iñet eta ikexi in beharko iñat.

9. Etzetik euskaldunak ez direnen ikasleen kasuan, uste duzu behar bereziren bat zehatzen bat dagoela euskalkiarekiko? Eta batuarekiko?

Nire uztetan ezten ee, bai bueno bazeukan bean eragine baina den batik bat kaleko hizkuntzia zein ibiltzeuen eta zeinekin ibiltzeuen, parkin hasten badie ume gurasuk euskaldunak dauzkenak jolasin nahi edo ez euskalkixe ikasiko deue ze une hoxek euskerie azkoitiarra ingo iñat, ordun, gehixo den ee ume hoixek kalea ertetzen deunin ze hizkuntzatan jarduten deuen da zeinekin jarduteuen eta gero batxe ikusten ari geana azkenengo urteetan ee nahiz da gurasuk kanpotarrak izan ze jarrera eukeuen euskeriei buruz, batzui ba etzakon bate inporta eta ba neri iualtzat nere semiek erderaz o euskaraz eitxeun eta ordun ya horrek normalin ume horrek euskerie eta bere euskalkiko jarrera ezkorrak hartzen hasten die eta berez baldin baa giro nahiz da erdaldunek izen gurasuk nahi baldin badeue euskara girun da hezii da zea askoz errexo inorrenzat daa jarrera baikorra eukitzie beraiek euskerie batuee ee dialektuak o nahi deuna euskerie indartzie.

Eskolan lelengo jakin bideue euskaraz batue ikasi bir deuna da irakurtzen ikesteko, hor aldaketan esaten debena da galdu in leikela ikasle hoixek?, bai zaille baden azkenin bi euskera dezberdin bezela eitxeu, beaxentzako zailoue da hori guztiz garbi euki ba guk horren bardiñe irakasle bezela prozesu bat izan behar den ume horrek nere uztetan lelengo euskara batuan ikesti komeni ze testuek ulermena eukitzeko behar da euskara batua.

10. Ikasleen artean, euskara H1 edo H2 gisa eduki, ezberdintasunik ikusten al duzu euskalki edota batuarekiko?

Ez, ez eztiñat, bañe esaten bixek etxin jasota ez? ez nire kasun adibidez nik bixek jasan nitxuen eta.

11. Euskalki eta batuaren arteko harremana dela eta, beste ezer erantsi nahiko zenuke?

Eutsi in behar dixoula eta euskalkixe erabili.

2.4. Eranskina: E4 irakasleari egindako elkarrizketa

1. Nongoa zara? Zein da zure ama-hizkuntza? Euskalkia erabiltzen al duzu?

Ni Donostikua, biyak, gaztelera eta euskera, baina etxen nahiko bai giñun ee gurasoak ez dakie euskaraz, bueno aitzek zerbait e bai baine hitzein da oso gutxi eta amak ez du ulertzen eta gero aldi beren aitxon amonekin bizi giñen eta euskeraz haiekin eta ordun ba biak. Bai eta hor nahasketa badauket porque zergatikan aitxon-amonak nafarrak zien gero ni donostikoa izanda badauket nahasketa.

2. Nolako presentzia du euskalkiak zure herrian?

Nere herrin Donostin esatezu? nik ustet gutxi ba iual Igeldo aldekuak eta gutxi Igeldo ere ba zea barna hori eta gehio nabaritzen da, atxukalde aldekoa bai gehio baina berez donostin bertan bizi direnak oso batuan hitz eitxen deue.

3. Zenbat denbora daramazu ikastetxe honetan? Batu eta euskalkiaren erabilerari dagokionez, aldaketarik ikusi al duzu azken urteotan? Zein da zure erreakzioa horren aurrean?

Honetan?, bueno egon nintzan aurreko urtin Eibarren baino aurretik lau urte ta erdi hemen Azkoitin. Hamen umeengan esateozu? bai bai nik eztot ikusten, nik ikusten dudanei askotan iual hamen berez azkoitin badaude hitz batzuk tokikuak dianak hemenguak eta eztituzte erabiltzen, garai baten etorri nintzanian iual gehio bebarrue portala dala oo korrika eitxea edo lasterketa eitxea “antxintxiken” eta holako hitzek ia eztituzte erabiltzen da pena bat da hoi.

4. Ikasleekin izaten dituzun hartu-emanetan euskara batua edo euskalkia erabiltzen duzu? Zergatik? Gela barruan edo kanpoan egon zure hizkera aldatu egiten da? Agian gune formal batetik ez-formal batean egotera pasatzean?

Nik ere saiatzen naiz euskara batua eitxen klase barrenen, edo ia nik esatet baina saiatzen naiz klase ematerakoan bai batua erabiltzen. Garbigoa delako eta nik nere euskalki propioa dauket eta askotan iuel ba gero lan itxerakuan ee esaten dan bezala ez? idazten ahal dutelako, eta ba saiatzen naiz bixkat hori errespetatzen eta beraiei hori argiago azaltzen bezela. Azkoitxin ere beraiek azkoitxiarrez itxen deue eta hemen beraiek batzuk esaten deuen bezela idazten deue eta nahiko lan baduen horrekin eta beste euskalki bat sartzen badut nerie nahasie daona pues ez diet mesedeik iñen eta horregatik itxet batue erabili. Bai bai bai bai, nahiko garbi hitzeitxet gelan eta gero ateaten naiz hemen nire euskalkixen.

5. Euskalkiak ikastetxean duen presentziaren inguruan zer iritzi duzu? Eta ikasgelan? Behar besteko garrantzia ematen zaio tokiko hizkerari ikastetxean egiten diren ekintzetan?

Osea azkoitiarra bera, ba nik uzte irakasleen artean badaola badao joera hori eta gainera beraien ee zea hizkuntza hori errespetatu eta maitatu itxen da eta erabili itxen due eta osake nik ikusten dut iual generazio hauetan orain datozenetan ez dutela berdin baloratzen da nahasketa, ba bueno be bai famili giroan eta errealidade ezberdinak daude eta geroz eta garbio bezela ez dute horren azkoitiarren hitz eitxen nik ez dut ikusten hori osa ikusten dut

pixu bat hori galtzen hari dela ez?. Bai, nik beraiei nik euskara batua itxen saiatzen naiz baina gero ahozkotasunean lantzen ari ganen ni hori bai saiatzen naizela markatzen ze batzuk iual ez? ee o argi hitzeiten duten hoiei iual derrepente azkoitiarrez hasten dan batetik oso oso markatue daukelako eta iual gelditzen da txokatu edo ez? hor ni saiatzen naiz horri ere garrantzia ematen gauza bat dela zu euskara batu hortan ba nere kasun klase ematerakoan pasa saiatu naizela garbi itxeiten edo idazterakoan ere saiatu behar naizela bixkat ez? dauden arauak eta errespetatzen baino ahozkoan aberasgarriago dela bakoitzak bere euskalkin hitzeitia eta batez ere norberan herrikua mantentzea eta hiztegi hori eta dena altxor bat da eta azkenian hori mantendu in behar da.

6. Ikastetxeak erabaki zehatzik hartu al du euskalkiaren erabileraren inguruan? Hala bada, zein? Bat al zatoz horrekin? Zergatik?

Euskalkiaren erabilera como tal iual ez, baina euskerien alde bai. Errealidade bat da erderaz hitz eitzeko joerie badaula, ba bueno ez? ee sare sozialengatik o ikusten dittuzten, telebistan dauden gauzengatik iual gehio erdarara jotzen dute iual eztaolako horrenbeste ez? informazio iturri edo iual aukera gehio euskara gutxiau ordun nahi gabe ere pues ee joera dao beraien artean ere gauzak komentatzen dittuenean holako serietan ba erdara jotzeue, hemen ikastola ikastetxe modun bai ibili da horren alde asko borrokatzen iual euskalkien es como tal baino desde luego euskara alde eta ovbiamente Azkoitin eonda azkoitiarren alde izanen da zuzenian ez baina bai.

7. Ikasleen euskalkia ezagutzen ez duten irakasleak badaudela kontuan hartuta, honen inguruko jakintzaren bat izan beharko luketela uste duzu? Prest egongo al zinateke horrelako formakuntzaren batean (nola indartu tokiko euskalkia ikasleekin) parte-hartzeko?

Errepikatu hori faborez. Bai nikuzte dut baietz, ni adibidez Nafarroa urte dexentetan ibili naiz lanian eta ni topatu naiz herri txiki askotan eremu ba bueno landa eremuko eskola hoitan ee eta niri ba bueno zorionez porke neretzako hori zorionekoa da pasatu zait iual kurtso hasieran holako hiztegi dokumentu bat esanez faborez hitz horiek errespetatzeko bertakuak dielako eta pixka bat ez galtzeko ez? eta nik hamen Azkoitin adibidez bai euki nun aukera hori etorri nintzaten lehengo aldiz 2017n, niri hori bueno ba irakasle batek baino gehiago esan ziten eskatu ziten mesedez hori ba zuk azkenen zure hiztegie daukezu eta ba iual hiztegi faborez errespetatzeko eta ni aahal den heinean saiatzen naiz de hecho datorren astin pasatuzte badao holako liburu bat azkoitiko hiztegina eta pasa intziguten berri batzuri eta ia hortik aurrera batzuk in zuten beste batzuk ez baino baino bai nere kasun intzuen da eta neretzako hori puntazo bat porque esque da in beharreko zerbait eta galdu iten da. Bai, bai bai bai bai dudaik gabe.

8. Gainerako irakasleekin komunikatzeko batua edo euskalkia erabiltzen duzu? Zergatik? Irakasleen arteko bileretan zer erabiltzen da euskara edo euskara batua? Adostua al duzue erabakiren bat?

Nerie, nere euskalkie bai. Nerie dalako nortasuna da nortasuna markatzen du ta zure jatorria da zure ama-hizkuntza da eta zu definitzen zaittune da ta euskera parte ta euskerako zati handi bat da euskalkia bera da euskalki ezberdinek nik ustet hori aberasgarrie dala gure artien konpartitzea. Nik ustet hemen euskalkia erabiltzen dala, bai bai gure artien nik uste iual ee nik nerie pertsonal ni klasien saiatzan naiz batuan esan dizuten arrazoiengatik baina gero gu ia bileratan eta hola izen danen nik ustet ia bakoitzan nabarmen da, bakoitzan euskalkia erabiltzen dugula.

9. Etxetik euskaldunak ez direnen ikasleen kasuan, uste duzu behar bereziren bat zehatzen bat dagoela euskalkiarekiko? Eta batuarekiko?

Bai nik uste iual baietz, bai nik ustet hor ee bueno nahiko lan badute euskera ikastekin eta ba bueno iual e iten dire azkenien bertakoekin itxen badeue azkenian gelditzen zaie euskalki hori beraiei ere bai eta hori erabiltzen dute ez? baino bai hasieran gabezi asko dago zentzu horretan eta eta iual hori pixka bat ere bai bultzatu in beharra zaie pixka bat euskaraz itxea baina ere bai dauden lekuko euskara hori eitxea bai. Batuarekiko nik uste ez dutela zera jasotzen dute, eskolako bai, zeratan.

10. Ikasleen artean, euskara H1 edo H2 gisa eduki, ezberdintasunik ikusten al duzu euskalki edota batuarekiko?

Nolaa? bai. Bai bai nik uste bizi in dut nire ikastolan bertan gu e giñen batzuk ama-hizkuntza biak giñula o bueno gehien bat nik nere lagun guztikin eukaraz itxet baino gero giñun klasean adibidez ni ere akordatzen naiz horretaz, ama-hizkuntza gaztelania zutenak bakarrik erabiltzen zuten ikastolan eta gutxi eta hori ere gertatzen da hemen pues etorkiñen kasu batzuetan, adibidez edo ez etorkiñek ee batzuetan ere adibidez, eta nik hor nik ustet nabarmentzen dela geroz eta euskara gehio egin geroz eta bertakoa ez? zure euskalki hori erabiltzeozu e nik uztet hor ez bada zure ama hizkuntza o bigarren hizkuntza baldin badozu ba iual eztaukezu edo ez dioziu ematen horrenbeste garrantzia edo ez erabilera hori itxen dozu nahi gabe ere batura jotzea.

11. Euskalki eta batuaren arteko harremana dela eta, beste ezer erantsi nahiko zenuke?

Ez, nik uste bueno ez, ez, bai nik esango nun aber iual ez ikastetxe mailan nik uztet ia gizartean orokorrean ez? nik uztet globalizatzen ari dala dana eta niri kriston pena ematen dit hamen badaude gauze batzuk ee nere uztez aldatu behar dienak eta hoietakoa bat da ba bueno kontzientziatzia jendia ia ez da euskaraz aritzea ze galtzen ari da baino neretzako hori ia puntu bat da garrantzitsuena baina gero ere euskaran barrenen ere dana globalizatzea dana ulertuaraztea dana ze gauza bat da zu ofizialki gauzak paperetan edo

ez? klase ematerakoan iual ari zarela hori lantzen baina egunerokotasun batian garrantzitsua da hori dana e bai sustatzea, bultzatzea eta errespetatzea norberana berea dala eta ez da gauza bat zurea dalako edo da pixka bat aberasgarria delako denen arten euskara da dena da euskera.

3. Eranskina

Materialetan euskalkien presentzia	Inoiz ez dut ikusi	Noizbait ikusi dut	Sarritan ikusi dut	Beti
Ikas materiala tokiko hizkerara egokituta dago.	X			
Euskal Herriko dialektoak aurkitu daitezke.		X		
Euskara batuan daude idatzita				
Materialak ikasleen euskalkien inguruko jakintza zabaltzeko eginda daude.				X
Irakasleak prestatutako materiala tokiko hizkerara egokituta dago.	X			
Ikasleek beraiek prestatutako materiala euskalkian egiteko aukera dute.	X			
Euskalki ezberdinetan idatzitako testuak erabiltzen dira.	X			
Entzumen eta ulermen jardueretan euskalkia erabiltzen da.		X		
Idatzizko materiala batuan dago.				X